

# **INFORMAZIOAREN ETA DOKUMENTAZIOAREN EREMUKO PROFESIONALAK EUSKADIN. LANBIDEAREN TESTUINGURUA ETA DUELA GUTXIKO HISTORIA**

Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao

## **1. HITZAURREA**

Testu honek hauxe du helburu: tresna deskribatzailea eskaintzea Euskadiko informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionaleri, lagungarri izan dadin bertan diharduten guztiekin partekatzeko orain dela gutxiko historiaren gorabeherei eta gure ingurunean gertatzen ari den bilakaera sortzen ari den faktoreei buruzko ikuspegi komuna.

Ez du, inola ere, lan itxia izan nahi. Aitzitik, eztabaida bultzatu nahi du, eztabaidatzea merezi duten alderdi guztien inguruan jarduteko. Dinamizatzeko xedearekin prestatu da. Hori dela eta, deskribatzailea den arren, zenbait iruzkin eta balorazio egin dira, polemika bilatzeko eta eztabaida sustatzeko helburuarekin.

Begi-bistakoa da lanbidea aldatzen eta bere bidea egiten ari dela hainbat faktoreren eraginez. Hori hitzetik hortzera ari gara esaten. Faktore horiek elkartzen diren horietakoak dira, eta sistemen pentsamenduaren ikuspegitik aztertu behar dira, arazoari bere osotasunean heltzeko eta ekimena aldi berean lor daitezkeen hainbat helburutara bideratzeko.

Erakunde batzuetako eta besteetako lanpostuak (publiko eta pribatuetakoak, gizartearen, kulturaren nahiz produkzioaren ingurukoak) profesionalak bertan duten jardunaren arabera ari dira zedarritzen. Hortaz, nork bere erara eta koordinaziorik gabe. Gaur egun, elkarren ondoan ditugu sortzen ari diren rola eta tradizionalak. Alabaina, azken horiek ez dira zaharkitu.

Honakoak aipa ditzakegu aldaketan eragin handiena duten faktoreen artean:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (aurrerantzean IKT) barne hartzea lanbide-jardunean, nabarmen gaituz gizartearen maila eta esparru guztietan oro har izan duten eragina.

- Antolatzeke metodoetan izandako aldaketak. Horien artean ditugu kalitatearen kudeaketa (prozesuen araberako kudeaketa) edo ezagutzaren kudeaketa (informazioaren kudeaketa edo ukiezinen kudeaketa).
- Bestalde, ezin dugu gutxietsi lan-munduan eta erakundeetan pixkanaka ari direla sartzen dokumentazioaren eremuko berariazko prestakuntza duten unibertsitateko lehen, bigarren eta hirugarren zikloko profesionalak.

Lanbidea aldatzeko fenomeno horren baitan, ezinbestean eskaini behar dizkiogu lerro batzuk egin den bidea aurkezteari eta sektoreak Euskadin duen egoeraren ikuspegi panoramikoaren nondik norakoak zehazteko ahaleginari, hori lagungarri izango baita, zalantzarik gabe, eszenatoki berri horri aurre egiteko eredia definitzeko erronkari heltzeko garaian.

Azterlan hau Euskal Autonomia Erkidegora (aurrerantzean EAE) edo Euskadira mugatuko da. Haatik, erkidego horretako errealitatea egoki azertu ahal izateko, ezin dugu alde batera utzi Euskal Herria kultur ingurunea, ezta Espainiako eta Europako esparru soziopolitikoak eta erakundeak ere, horien baitan baitago.

Hamabost urteko aldia aztertuko dugu. Hainbat gertaera garrantzitsu gogoan hartuta, 1990etik abiatuko gara, urte horren inguruan jazo baitziren azpimarratzeko moduko hainbat gertakari:

- 1987an izan zen *Eusko Ikaskuntzen X. Kongresua*, Eusko Ikaskuntzak antolatutakoa, Artxiiboak, liburutegiak eta museoak izenekoak.
- 1987an sortu zen *Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkartea*.
- 1987 argitaratu zen *Bilduma* aldizkaria, Errenteriako artxiiboak kaleratutakoa.
- 1988an argitaratu zen artxibistikari buruzko *Irargi* aldizkariaren lehen zenbakia.
- 1989an Deustuko Unibertsitateak bibliotekonomiari buruzko hainbat ikastaro eman zituen Liburutegi Nazionalarekin batera, eta horietatik abiatuta sortu zen *Dokumentazioa eta Ondare Historikoaren Kudeaketa espezializazio-diploma*, 1991n.
- 1990ean *Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea* ezarri zen.

- 1990ean *ALDEE* sortu zen, *Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte*, hasieran beste izen bat izan bazuen ere.
- 1990ean sortu zen EHUren *Bibliotekonomia masterra*.
- 1991n sortu zen *Artxibistika masterra*, oraingoan ere EHU.

Horiek guztiak mugarri izan dira, iragana eta geroa bereizi baitituzte, izan ere:

- 1987ko X. kongresu horren aktetan aditzera ematen da egungo eszenatokiaren aurreko *state of the art* delakoa: joera historiografiko indartsua; IKTen ezarpen urria edo batere ezarpenik ez; ekimen publikoak eta erakundeen ekimenak "proiektuen" edo "aurrerapenen" mailan; bibliotekonomiako eta dokumentazioko unibertsitate-tituludun berriak oraindik lanean hasi gabe.
- Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea, bestalde, artxibo eta liburutegien egoera arautzeko saioa izan zen eta administrazioak une hartan nolabaiteko kezka bazuela erakusten du.
- Horrezaz gain, elkarteak sortzeak adierazten du profesionalen taldeak bazuela antolatzeke eta aurrera egiteke gogo.
- Amaitzeko, profesionalen eskaria gero eta handiagoa izan zen eta, horri aurre egiten ahalegintzeko, sarrera gisako ikastaroak sortu ziren euskal unibertsitateetan (kasu bakar batean ere ez ziren izan prestakuntza teorikoko 40 kreditu edo guztira 60 kreditu baino gehiago).

Txosten honek sakona eta zehatza izan nahi du. Osotasunaren ikuspegi globala eta berori osatzen duten zatien ikuspegi deskribatzailea ahalbidetu nahi ditu. Lanbidearen inguruko elementu, adierazpen, alderdi eta aldagai guztiak jo ditugu barne hartzeko modukotzat. Euskadi txikia izateak (geografiari nahiz demografiari begira) eta lanbidearen beraren dimentsioa ere txikia izateak hori egiteko aukera eskaini digu (biztanleria aktiboaren % 0,08, sektorean diharduten hogeita hamar enpresa inguru, hogeit bat artxibo eta liburutegi handi, eta erdi-mailako tamainako kultur ekipamenduen sare publikoak).

### **1.1. Aurrekariak**

Amaitzeko, badira azpimarratzeko moduko hainbat aurrekari, etorkizunera begira garrantzia izan dezaketenak:

### 1.1.1. 70eko hamarkadan,

- Kultura berpiztu egin zen. Horren adierazgarri ditugu honakook: euskara gizartean berriz balioestea (Batua 1969), argitaletxe ugari sortzea, hamaika aldizkari eta argitalpen sortzea, eta beste hainbat esparrutako kultur zabalkundea (musika, antzerkia, zinema, pintura, eskultura eta abar).
- Horrezaz gain, unibertsitate propioaren aldeko aldarrikapena indartu egin zen. Hainbat hamarkadatan desio ondoren, hamarkada honen amaieran gauzatu zen.
- Hori guztia aldaketan oinarritutako giro sozial eta politikoaren baitan, Euskadiren kasuan demokrazia eta autogobernua bezalako ideien inguruan.

### 1.1.2. 80ko hamarkadan,

- Euskadiko erakundeak ezarri ziren berriz. Bereziki Eusko Jaurlaritza, baina horrezaz gain, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-aldundiek ekonomia-ituna berreskuratu zuten eta horrekin batera nork bere burua finantzatzeko ahalmena.
- Urte horietan babes ofiziala izan zuten eta dirulaguntzak jaso zituzten euskal kulturaren adierazpen guztiak.

### 1.1.3. 90eko hamarkadan,

- Behin betiko aldatu zen hemeretzigarren mendeko industria-sarea. Tradiziozko industria- eta produkzio-ehuna beste sektore batzuetara bideratu behar zen eta merkatuaren modu berrietara eta globalizaziora egokitu.
- Kultur ekipamendu handiak eraiki ziren eta hainbat dokumentazio-zentroren egoitzak berregokitu edo eraiki ziren (Gasteizko gizarte-etxeak 1989, Gasteizko Udal Artxiboa 1990, Gipuzkoako Artxibo Orokorra 1990, Koldo Mitxelena Kulturunea 1993, Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia 1993, Guggenheim Bilbao 1997, Euskalduna 1999, Kursaal 1999).

1.1.4. XXI. mendean,

- Informazioaren gizartea finkatzea Euskadiko etxe eta enpresetan IKTak oro har ezartzearen bidez.
- Enplegu-merkatuak irekitzea (globalizazioa, immigrazioa, Europar Batasuna) eta ikaskuntza aldatzea (etengabea, autonomia, hainbat diziplinatakoa, oso espezializatua...).

## **2. KANPOKO INGURUNEA**

### **2.1. Datu demografikoak<sup>(1)</sup>**

Euskadik 2.200.000 biztanle inguru ditu egun. Horietatik 981.100 inguru biztanle aktibo dira, eta horien arteko 912.500 inguru lanean ari dira. Langabezia-tasa % 7 ingurukoa da. Biztanleria aktiboaren artean 145.500 lagunek lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituzte, 557.300 pertsonak erdi-mailako ikasketak eta 278.200 lagunek unibertsitateko ikasketak. Unibertsitarioak biztanleria aktiboaren % 28,35 dira (% 12 ziren 1985ean).

Azkeneko 25 urteetan ia egonkorra izan da biztanleriaren zenbatekoa: 1981, 2.141.809; 1986, 2.136.100; 1991, 2.104.041; 1996, 2.098.055; 2001, 2.082.587.

Azkeneko bosturtekoan EAE pertsonak hartzen dituen erkidego bihurtu da berriz. Migrazioaren saldoa 10.000 atzerritarrekoa eta beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen beste 7.000 pertsonakoa da, gutxi gorabehera.

### **2.2. Hizkuntzak**

Euskadin bi hizkuntza ofizial ditugu. Gaztelania herritar guztiek ezagutzen dute. Gaztelania da gehienek eta gehien erabiltzen den hizkuntza. Espainiako gizarte-komunitate eta merkatu osoak hizkuntza hori bera izatea du abantaila. Gainera, munduan gaztelaniaz mintzatzen direnen komunitatea 400 milioi ingurukoa da. Hizkuntza horretan izaten dira enpresa, zientzia eta merkatuaren esparruko harreman ia guztiak Euskadin.

Euskarari dagokionez, 2001ean euskaldunak % 32,2 ziren EAEn 2 urte baino gehiagoko biztanleen artean. Ia euskaldunak, berriz, % 23,1 eta erdaldunak % 44,6<sup>(2)</sup>. Gure ondare kultural eta soziala nabarmen aberastea du abantaila nagusi. Ia haur guztiek dakite euskaraz eta 40 urte baino gutxiagoko sektore zabalak daude alfabetatuta.

### **2.3. Unibertsitateak. Unibertsitatea Euskadin<sup>(3)</sup>**

Deustuko Unibertsitate katolikoak bere bideari 1886an ekin zion arren, bertako prestakuntza-eskaintza zuzenbideko eta ekonomia- eta enpresa-zientzietako ikasketetara bideratutakoa izan da tradizioz, euskal industriako eta finantzen munduko agintariak prestatzeko xedearekin.

1968/1969 ikasturtetik aurrera Bilboko Unibertsitate Barrutia sortu zen, Bizkaia eta Valladolid bereiziz. Aldi berean, Medikuntza eta Zientzietako fakultateak eta Arte Ederretako goi-mailako eskola sortu ziren. Hurrengo urratsa 1980an egin zen, Bilboko unibertsitatea Euskal Herriko Unibertsitate bihurtu zenean.

Araban, berriz, honako ikasketak izan ditugu: Maisutzakoak 1847tik; Industriako Ingeniaritza Teknikokoak eta Gizarte Lanekoak 60ko hamarkadaren hasieratik. Ondoren hasi ziren Filosofia eta Letrak (Ingeles Filologia, Frantses Filologia eta Geografia eta Historia), Medikuntza, Zientzia Kimikoak, Fisikoak eta Matematika irakasten, 1971n Arabako Unibertsitate Ikastegia inauguratu zenetik, hain zuzen ere.

Gasteizko Apaizgaitegian tradizioz elizak eskainitako ikasketei lotutako diziplina humanistikoak ikasi ahal izan dira.

1974an ekin zion bere bideari UNEDek Gasteizen.

Gipuzkoan, Deustuko eta Nafarroako unibertsitateek enpresa-ikasketak eta industria-ingeniaritzak eskaintzen dituzte hirurogeiko hamarkadaz geroztik. Ekimen publikoa honela gauzatu zen Donostian: Zuzenbideko fakultatea (1968), Zientzia Kimikoak (1974), Informatika (1978), Maisutza eta Enpresa Ikasketak (1977).

1978an ekin zion bere bideari UNEDek Bergaran.

1977an bereizi ziren euskal lurraldeak Valladolideko unibertsitate-barrutitik, eta autonomo bihurtu.

1980an sortu zen Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), publikoa eta hiru campusetan banatutakoa.

Hauxe izan zen eskaintza 1991/1992 ikasturtean:

- **Leioan:** Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultateak, Gizarte eta Informazio Zientziak, Zientziak, Medikuntza eta Odontologia, Arte Ederrak, Enpresa Ikasketen eskolak, Industria eta Telekomunikazioko ingeniaritzak, Gizarte Graduatua, Erizaintza, Maisutza, Meatzeetako Ingeniaritza Teknikoa eta Industriako Ingeniaritza Teknikoa.
- **Gipuzkoan:** fakultateen artean, Kimika, Zuzenbidea, Informatika, Filosofia eta Hezkuntza Zientziak, Psikologia, Arkitektura; eta eskolen artean, Enpresa Ikasketak, Erizaintza, Maisutza, Industriako Ingeniaritza Teknikoa eta Gizarte Lana.

- **Araban:** fakultateen artean, Filologia eta Geografia eta Historia, Farmazia; eskolen artean, Maisutza, Industriako Ingeniaritza Teknikoa eta Topografia, Erizaintza eta Gizarte Lana.

2005/2006 ikasturterako eskaintza zabalagoa da, urteek aurrera egin ahala titulazio berriak gehitu dira eta. Horien zerrenda osoa ikusteko, EHUren web-orria kontsulta dezakezue [www.ehu.es](http://www.ehu.es).

1990-1991 ikasturtean hasi zuen bere ibilbidea Bizkaiko UNEDek, Portugaleteko instalazioetan.

1997an Mondragon Unibertsitatea sortu zen. Pribatua da eta batez ere ikasketa teknikoak eskaintzen ditu.

EAEk bere barne-produktu gordinaren % 0,84 bideratzen du EHUra. Zenbateko txikia, Espainian eta Europar Batasunean unibertsitate publiko eta pribatuetara bideratzen den BPGarekin konparatuta, horienak % 1,1 eta % 1,26koak baitira, hurrenez hurren. Ameriketako Estatu Batuen kasuan, berriz, % 2,33, 2004ko datuen argitara<sup>(4)</sup>.

#### **2.4. EAEko produkzio-sektoreak**

Gaur egun zerbitzuen sektorean dihardu lanean ari direnen % 60,8k, % 27,6k industrian, % 9,5ek eraikuntzan eta % 2,1ek lehen sektorean<sup>(5)</sup>.

1994 eta 2004 urteen artean honako aldaketa izan dute biztanleria aktiboaren (lanean ari direnen + langabeen) zenbatekoek:

- Zerbitzuen sektorean 511.000 pertsonatik 604.100era igo dira.
- Industrian, berriz, 237.600 pertsonatik 258.400era.
- Eraikuntzan, aldiz, 84.700 pertsonatik 92.300era.
- Nekazaritzan, ostera, 26.000 lagunetik 16.600ra jaitsi dira.

Merezi du azpimarratzea beherantz doazela nekazaritzan lan egiten duten biztanleen kopuruak, mendebalde osoan bezala. Bien bitartean, zerbitzuen eta industriaren sektoreak dira jarduera gehien sortzen dutenak produkzio-sektoreen artean. Eta, hain zuzen ere, bi esparru horietan sartu dira gehien eta izan dute eraginik handiena sortzen ari diren informazioaren gizarteari lotutako bitarteko eta modu berriek.

Bete-betea ari gara murgiltzen informazioaren eta ezagutzaren gizartean. Honela ere izendatu izan dute delako gizarte hori hainbat autorek: hirugarren uhina, aro elektronikoa, aro digitala, informazio-gizarte, sareko gizarte, gizarte globala, hezkuntza eta ikaskuntzaren gizarte, industriaren ondorengo gizarte, kapitalismoaren ondorengo gizarte...

## **2.5. Aldaketa teknologikoa**

Informatika bat-batean sartzeak, Internet sortzeak eta ziztu bizian zabaltzeak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak deitzen ditugunak osatzen dituzten teknologia ugari eta anitzak garatzeak (horien artean ditugu telefonia mugikorra, satelitea, zuntz optikoa, eskanerra, irudi eta soinu digitala, euskarri optikoak, formatu digitalak eta multimedia) eragin duten aldaketa teknologikoa nekazaritzaren sorrerarekin edo industria-iraultzarekin bakarrik konpara dezakegu.

Gaur egun ordenagailu pertsonala (PC + inprimagailua + eskanerra + Internet) eta kamera digitala dituen edozein etxek informazioa sortzeko eta erabiltzeko duen ahalmena orain dela hamarkada batzuk ondoen hornitutako erakunde produktibo, akademiko edo instituzionalak izan zezakeena baino hamaika aldiz handiagoa da.

IKTei esker, informazio-sistemak eta informazio partekatuko sareak (horiek ezinbesteko tresna dira informazioa prozesatzeko eta aplikatzeko) erakundeen jarduna iraultzen ari dira. Hori dela eta, kanpoko eta barruko informazioa, formala nahiz informala, azkar lortzea ari dira ahalbidetzen, informazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko eta informazioa lurraldeen araberakoa izatea saihesteko.

Ondoren Euskadiko enpresa publiko eta pribatuen inguruko zenbait datu emango ditugu, baita beste leku batzuetakoekin alderatuta ere<sup>(6)</sup>.

- *Ordenagailuak erabiltzen dituzten 10 langile edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka 2002-2004 urteetan (%)*

	Urtea	%
<b>EAE</b>	2004	96,9
<b>Espainia</b>	2003	96,5
<b>Finlandia</b>	2002	99
<b>Suedia</b>	2002	99
<b>Europar Batasuna</b>	2002	94
<b>Grezia</b>	2002	88
<b>Portugal</b>	2002	84

- *Internerako sarbidea duten 10 langile edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka 2002-2004 urteetan (%)*

	Urtea	%
<b>EAE</b>	2004	89,2
<b>Espainia</b>	2003	87,4
<b>Finlandia</b>	2002	96
<b>Suedia</b>	2002	95
<b>Europar Batasuna</b>	2002	81
<b>Portugal</b>	2002	69
<b>Grezia</b>	2002	64


- *Web-orria duten 10 langile edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka 2002-2004 urteetan (%)*

	Urtea	%
<b>EAE</b>	2004	56,5
<b>Espania</b>	2003	45,5
<b>Suedia</b>	2002	84
<b>Finlandia</b>	2002	72
<b>Europar Batasuna</b>	2002	68
<b>Portugal</b>	2002	55
<b>EAE</b>	2002	54,3
<b>Grezia</b>	2002	52
<b>Espainia</b>	2002	40,9

Establecimientos por equipamientos TIC y estrato empleo en 2004. (%)

1.

Establezimenduak, IKT hornikuntzen eta enplegu-geruzaren arabera, 2004. (%)




Iturria: Eustat. *Informazioaren gizartea eta enpresak* [on line]. [Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274\\_c.pdf](http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274_c.pdf)>


Evolución en los establecimientos vascos de los equipamientos TIC 2001-2004. (%)

6.

IKT hornikuntzen bilakaera Euskal AEko establezimenduetan, 2001-2004. (%)



Iturria: Eustat. *Informazioaren gizartea eta enpresak* [on line]. [Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274\\_c.pdf](http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274_c.pdf)>



Iturria: Eustat. *Informazioaren gizartea eta enpresak* [on line]. [Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274\\_c.pdf](http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274_c.pdf)>

## 2.6. Produkzioko eta kudeaketako ereduaren bilakaera

Erakundeen baitan aldaketa handiak gertatu dira azkeneko hamarkadetan kudeaketako ereduari dagokienez. Gure lanbideari begira, honakoak azpimarra ditzakegu, beren garrantzia dela eta: kalitatearen kudeaketa, informazioaren kudeaketa eta ezagutzaren kudeaketa.

**Kalitatearen kudeaketa** dela eta, dokumentazioaren erabilera normalizatuak nabarmen egin du gora, dokumentu-tipoen formalizazioa administrazio publikora baino mugatzen ez zen herrialde batean.

Kalitatearen kontrola prozesuak esplizituki adieraztean datza. Eta horiek idatzizko dokumentuetan finkatzen dira. Prozesu guztiak gauzatze, kudeatze eta kontrolatzeko zeregina dokumentu-fluxuen bidez bideratzen da aldi berean.

Hori dela eta, zehatz-mehatz aztertu behar izan dira dokumentu-fluxu eta -prozesuak, produkzioko eta administrazioko zeregin- eta kudeaketa-mota guztiekin zerikusia dutenak. Amaitzeko, hori lagungarri izan da dokumentuak kudeatzeko norberaren ohiturak erakunde-kudeaketarako mota guztietako programa informatikoetan barne hartzeko.

Egoera hori dela medio, nabarmen egin du gora funtsean dokumentuen kudeaketa eta kontrolean oinarritzen diren lanbide-profilen kopuruak.

**Informazioaren kudeaketaren** baitan, bestalde, hainbat ikuspegi ditugu. Ez dira eredu antagonikoak, baina gaur egun ia iragazgaitz diren esparruetan jarduten dute. Haatik, elkar ongi osatzen duten planteamendutzat jo ditzakegu. Fokatze desberdinak aplikatzen dituzten eta elkarrengandik ia isolatuta dauden eremuek bat egitera joko dute ziurrenik.

- Informazioaren kudeaketa enpresa-kudeaketaren adar gisa. Erabaki estrategikoak, finantza-erabakiak eta negozio-zuzendaritzako erabakiak hartzeko informazioa.
- Informazioaren kudeaketa informatikaren adar gisa. Kudeaketa automatikoko prozesuak eta datuen ustiapen masiboa. Datu-basetara eta software soluzioetara eta ordenagailuetan gordetako informazioa egoki erabiltzeko hardware arkitekturetara bideratutakoa. Datu-bolumen handiak erabiltzea. Orain dela gutxi eta Interneten munduarekin lotuta, informazioaren kudeatzailearen eta edukien kudeatzailearen nozioa sortu da, web-ari lotuta betiere. Webmaster-aren aldaera da.
- Informazioaren kudeaketa komunikazioaren eta kazetaritzaren adar gisa. Informazio sortzaile eta ekoizleen inguruan sortutako ikuspegia, batez ere masa-komunikabideetatik. Komunikazio-prozesu guztien inguruan ere bai (marketinga, publizitatea, irakaskuntza, hezkuntza, ikaskuntza...)
- Informazioaren kudeaketa dokumentazio-zientzien adar gisa.

**Ezagutzaren kudeaketa** hainbat zientziak landu dute eta ez dagokio diziplina bakar bati. UOCo Informazio eta Komunikazio Zientzien Ikasketetako zuzendariak, Agustí Canals-ek, ezagutzaren kudeaketaren inguruko lau ikuspegi proposatzen ditu<sup>(7)</sup>.

- Teknologian oinarritutakoa

*“Azkeneko urteetan teknologiak, eta batez ere IKTek, izan duten aurrerapenak aukera eskaini digu erakundeetako ezagutza kudeatzeko lana errazten duten tresnak sortzeko. Fokatze honen baitan, aplikazio informatikoak dira elementu erabakitzailerik, hain zuzen ere, informazioa gordetzea, antolatzea eta aurkeztea ahalbidetzen dutenak, erakundearen ezagutza behar duenak behar duenean erabiltzeko aukera izan dezan, ezagutza hori bitarteko teknologikoen laguntzarekin irudikatzearen bidez.*

*Horren ondorioz, langileen ezagutza tazitua ez da hain garrantzitsua izango eta horietako batek enpresa uzten duenean ez du berori deskapitalizatuko, bere ezagutzak datu-baseetan eta enpresa-prozesuetan jarraituko baitu, esplizituki. Kasurik muturrekoenean, sistema informatiko bat ezartzea ezagutzaren kudeaketan oinarritutako proiektua litzateke”.*

- Informazio-zientzietan oinarritutakoa

*“Helburua ezagutza kudeatzea bada, pentsa dezakegu nahikoa izango dela tradizioz gizakiak ezagutza gordetzeko eta transmititzeko erabili dituen objektuak katalogatzeko eta antolatzeke modua definitu duten diziplinetara jotzea, alegia, liburu, dokumentu, aldizkako argitalpen eta abarretara jotzea. Gainera, diziplina horiek aztertu dituzte objektu horiek jasotzen duten informazioa bilatzeko eta berreskuratzeke modua. Zalantzarik gabe, ezagutza horiek ezinbesteko izango dira erakundeen ezagutza kudeatzeke helburu duen edozein proiektutarako. Alabaina, ezagutzaren kudeaketak dokumentuen kudeaketa baino harantzago jo beharko du, nahiz eta dokumentu horiek formatu elektronikoa izan”.*

- Pertsonengan oinarritutakoa

*“Pertsonak dira giltzarri ezagutzaren kudeaketan. Horiek dira ezagutza sortzen dutenak eta beren jardunean erabiltzen dutenak. Hortaz, pentsa liteke gauza bat besterik ez dela egin behar: pertsonak ezagutza sortzeke eta transmititzeko prozesuak egoki gauzatu ahal izateke errazteke eta sustatzeko baldintzak sortu. Ezagutza tazitua ordezkazina dela konturatuta, askok pentsatzen du ezagutza hori duten pertsonak kudeatzeke dela egin litekeen gauza bakarra. Teknologia, edonola ere, komunikazioa errazteke eta pertsona bakoitzak duen ezagutza tazitua seguru jakiteke erabiltzen da. Azkenean, ezagutza kudeatzeke eta giza balia bideak kudeatzeke nahasten dira”.*

- Ekonomian oinarritutakoa

*“Kezka nagusia erakundeen kapital intelektuala balioestea da. Honakoa da planteamendu honen atzean ezkututzen den ideia: aktibo inmaterialen balioa non dagoen argi eta garbi ezartzeke lortzen dugunean, oso erraza izango da horiek kudeatzeke. Muturrera eramanda, ezagutzaren kudeaketa erakundearen aktibo inmaterialak balioesteko kontabilitate-zeregin bihurtzen da”.*

Azkeneko fokatze horren baitan, enpresa-kudeaketaren ikuspegitik begiratuta, Ezagutzaren Klusterra dugu buru Euskadin. Alabaina, egia esan, ez da eredu garbia, nolabaiteko pisua ematen baitie teknologian eta pertsonengan oinarritutako ikuspegiari. Hiru oinarriko ereduak eraiki da (teknologia / pertsonak / aktibo ukiezinak), informazio- eta dokumentazio-zientzietan oinarritutako ikuspegia alde batera utziz.

## **2.7. Ingelesa finkatzea hizkuntza zientifiko eta merkatuaren hizkuntza gisa**

Gizarte globalaren esparruan, hainbat hizkuntza jakiteak lehiarako abantailak eskaintzen ditu eta bertan hizkuntza ugari izatea bera aberasgarri da munduko kultur egoerarako. Alabaina, horri begira ezinbestean azpimarratu behar dugu ingelesa pixkanaka, baina gero eta gehiago, ari dela egonkortzen zientzia-trukerako eta negoziotarako hizkuntza gisa.

Gaur egun ingelesezkoa da munduko zientzia-produkzioaren zati handi bat, eta horiek ere ingelesez argitaratzen dira, bitarteko tradizionalak nahiz digitalak erabiliz. Interneten ere ingelesa da nagusi. Negozioen eta munduko merkatuen esparruan ere ingelesa erabiltzen da trukerako hizkuntza bezala.

Egiaz *lingua franca* bilakatzeko bidean da.

## **2.8. Argitaletxeak**

Euskadin ez da asko aztertu gai hau, baina esan genezake Donostia bezalako hiriek tradizioz lotura estua izan dutela argitalpen-industriarekin. Honi dagokionez, gogoratzekoa da oraindik orain ia ez dagoela Euskadiko inprimategien edo argitalpenen historia sakon aztertu duen lan monografikorik (horretan salbuespen Julio César Santoyok egindako hiru liburukiak: *La imprenta en Álava en los siglos XVIII y XIX*, gainerakoak artikuluak eta zatiko azterlanak besterik ez baitira). Halaber, ez dago liburutegien edo artxiboen historiari buruzko azterlanik (Sanz de Ormazabalen liburuak, duen izenburua badu ere –ikus 31. oinoharra–, gaira hurbildu besterik ez da egiten obrak dituen 35 kapituluetakoko seitan).

70eko hamarkadan argitaletxe ugari sortu ziren Euskadin euskarazko argitalpenen eta euskal gaien inguruko argitalpenen aldeko giro bizian (Lur, Jakin, Gero, Elkar, Ediciones Vascas, Geu, Erein, Hordago, Sendoa...)<sup>(8)</sup>.

Sektore honek gizartera eta merkatura zabaltzeko bitarteko bikaina du: *Durango*ko Liburu eta Disko Azoka (40. azoka 2005ean).

Ez dago berariaz dokumentazioaren eremua jorratzen duen argitalpen-ildorik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak abian jarritako argitalpen-ekimenaren bidez honakoak kaleratu dira orain artean: 2001ean eta 2002an urtekari estatistiko bana eta IFLAren zenbait jarraibide, euskaraz.

Liburuak merkaturatzean datzan sektoreari erreparatuz gero, Euskadin sektore horretan ziharduten establezimendu txikiak pixkanaka desagertzen ari dira eta horiek konpainia handien inguruan ari dira biltzen, Estatuan gertatzen den bezalaxe. Konpainia handi horiek, gainera, liburu-dendetako salmentan ez ezik, sektoreko beste hainbat prozesutan ere egiten dute lan, besteak beste banaketan eta argitalpenean.

## **2.9. Irakurketa eta ekipamendu teknologikoak etxean**

*“Euskadin maiz irakurtzen dituzte liburuak 16 urte baino gehiagoko pertsonen % 42,6k. Noizean behin % 15,8k, eta % 41,6k ez dute inoiz edo ia inoiz irakurtzen libururik. Adierazle horiek Espainiak bere osotasunean dituenekin konparatzen baditugu, ikusi ahal izango dugu Euskadin ehuneko 7 gehiago direla irakurtzeko ohitura dutenak, estatuan horretarako ohitura dutenekin alderatuta. Europako datuekin erkatuta berriz (Eurobarometroa), ikusi ahal izango dugu irakurtzen ez dutenen kopurua % 41,6 dela Euskadin eta % 42,1 Europar Batasunean (edonola ere, kopuru hori ez da guztiz homologarria, Eurobarometroak azkeneko hamabi hilabeteetan libururen bat irakurri ote duen galdetzen baitio erantzuten duenari).”<sup>(9)</sup>*

Eustatek denbora erabiltzeari buruz egindako inkestaren argitara, egunean 20 eta 30 minutu ematen ditugu irakurtzen asteburuetan<sup>(10)</sup>.

Irakurleen ezaugarri soziodemografikoak:

- “Irakurleen taldeak nahiko profil argia du, definitutako aldagaien arabera: batez bestekoa (% 53,4) baino gehiago irakurtzen dute emakumezkoek (% 60,2), 16 eta 44 urte arteko pertsonen (% 60 eta % 67 artean, adin-taldearen arabera), erdi-mailako (% 68,1) edo goi-mailako (% 81,5) ikasketak dituztenek, ikasleek (% 68,7) eta lanean ari direnek (% 59,1), gizarte-klase altuko / ertain altuko pertsonen (% 76,1) eta hiriburuetan (% 56,8) edo 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan (% 54,8) bizi direnek.”

- “Zehatzago esateko, bereziki irakurtzen dutenen taldea honakoek osatuko lukete: adin-tarte gazteenetako emakumezkoek, ikasketa-maila handiena dutenek eta lanean ari direnek (etxetik kanpo lan egiten dutenek).”
- “Euskaraz irakurtzen dutenen artean nabarmena da gehiago irakurtzen dutela erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenek. Adinari begiratuta, berriz, 12 eta 15 urte artean eta 16 eta 24 urte artean dituztenek. 2003an % 32,6k maiz edo noizean behin irakurtzen zuten euskaraz, 16 urte baino gehiagokoen artean.”
- “Internet erabiltzeko maiztasunari edo hori kontsultarako edo liburuak erosteko erabiltzeari dagokionez, Internet erabiltzeak badu erlazioa irakurtzeko ohiturarekin. Irakurtzeko ohitura dutenek noizean behin irakurtzen dutenek baino gehiago erabiltzen dute Internet, eta horiek irakurtzen ez dutenek baino gehiago.”<sup>(11)</sup>

Datu horien xede bakarra ikuspegi orokorrera hurbiltzen laguntzea izan da. Izan ere, irakurtzeko eta liburuak erosteko ohiturari buruzko txosten osatu samarrak argitaratzen dira urtero, argitaratzaile eta autoreen elkarleen enkarguz (Euskadiko Editoreen Elkarte, Cedro eta abar) eta erakundeen enkarguz (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoko Kabinetea, foru-aldundiak eta abar). Horrezaz gain, Eustatek astialdiari buruzko azterlanak egiten ditu, eta bertan irakurketaren inguruko datuak aipatzen.

Euskal etxeen % 39,4tan dute Interneterako sarbidea, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera. Kataluniak bakarrik gainditzen du ehuneko hori, etxeen % 40,4 baitaude konektatuta. Madril, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren maila berean dago. Azterlan horrek aditzera eman duenez, Espainian 4.544.751 etxetan dago Interneterako konexioa, 2003an baino milioi bat etxe gehiagotan, beraz.

Txosten horri jarraiki, ordenagailua duten 10 etxetatik seitan (% 48,1 dira horiek herrialde osoan) dute Interneterako sarbidea. Zenbateko horrek gora egin dezake hurrengo urteetan ordenagailua duten 2,6 milioi etxe baitaude oraindik Internetera konektatu gabe<sup>(12)</sup>.

Bestalde, Eustaten arabera, etxeen % 52,9tan linea telefoniko konbentzionalaren bidez sartzen dira Interneten. ADSL bidezkoak, aldiz, guztien % 34,3 dira. % 9,7 egiten dira sare-kable bidez eta % 3,5 ISDN bidez. Gainera,

azterlanak erakusten du euskaldunon % 42,1 sartu dela Interneten azkeneko hiru hilabeteetan<sup>(13)</sup>.

Etxeko eta enpresetako ekipamendu teknologikoei eta abarri buruzko azterlanak urtero argitaratzen dituzte Eustatek, INEk eta beste batzuek.

### **3. BARNEKO INGURUNEA**

#### **3.1. Erakundeak**

Ondoren EAEn artxibo eta liburutegien gaineko eskumenak dituzten erakundeei buruzko aipamen laburra egingo dugu.

Eusko Jaurlaritzak eskumen eskusiboa du kulturaren inguruko gaietan, Gernikako Estatutuari esker. EAEk bere gain hartzen du Estatuak ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoa babesteko ezarritako arau eta betebeharrak betetzeko ardura. EAera eskualdatu dira estatuaren titulartasunekoak ez diren artxibo, liburutegi eta museoak. Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen bidez definitu eta mugatu dira ondare dokumentala eta ondare bibliografikoa. Bertan definitu dira, halaber, artxibo eta liburutegien sistemak, eta berorren bidez sortu Artxiboen Sistema Nazionala eta Liburutegien Sistema Nazionala. Eusko Jaurlaritzak bere egin ditu udaletako liburutegien eta artxiboen gaineko eskumenak.

Foru-aldundiek dute lurralde historikoaren titulartasuneko artxibo, liburutegi eta abarren gaineko eskumen eskusiboa, Lurralde Historikoen Legearen 7. artikulua dioenaren arabera.

Udalek, bestalde, liburutegi publikoaren zerbitzua eskaintzeko betebeharra dute 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikulua ezartzen duenez.

Lege horrek berak herritarren informazioa eta parte-hartzea ahalbidetzera behartzen ditu toki-erakunde guztiak, besteak beste, honako eskubidea dela eta: artxiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea, Konstituzioaren 105. artikuluko b paragrafoa garatzeko legeriak ezartzen duenaren arabera. Konstituzio-artikulu hori garatu gabe dago oraindik.

Erakunde pribatuen artxibo, dokumentazio-zentro eta liburutegiak (baita produkzio-enpresenak ere), Euskal Kultur Ondareari buruzko legeak xedatutakoaren mendeko izango dira, ondare dokumental edo bibliografikoa duten heinean.

### 3.2. Lege-esparrua

Ondoren zerrendatuko ditugu lanbidearen hainbat alderdi eta eremutan zuzenean eragiten duten lege-xedapen nagusiak. Ez ditugu zuzentarauak eta Europako araudiak aipatuko.

#### 3.2.1. *Autonomia-erkidegoko legeria:*

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.**
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, **Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa.**
- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, **Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.**
- 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, **Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea** erregulatzeko arauak onartzen dituena.
- 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren** antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

#### 3.2.2. *Estatuko legeria:*

- 1978ko **Espainiako Konstituzioa.**
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, **Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.**
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, **Datu Pertsonalak babesteari buruzkoa.**
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, **Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.**
- 1/1996 **Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualari buruzko legearen testu bategina onartzen duena, gai horren inguruan indarrean diren lege-xedapenak arautuz, argituz eta harmonizatuz.**
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.**

- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, **Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa.**
- 1164/2002 Errege Dekretua, azaroaren 8koa. **Horren bidez arauak eman ziren, balio historikoa duen agiri-ondarea gordetzeko, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde publikoen agirien suntsiketa kontrolatzeko, eta administrazio-agiriak jatorrikoaz bestelako euskarri batean gordetzeko.**
- 937/2003 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, **Artxibo Judizialak modernizatzeari buruzkoa.**
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, **toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.**
- 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, **sinadura elektronikoari buruzkoa.**

*3.2.3. Bibliotekomiaren eta dokumentazioaren eremuko irakaskuntzari buruzko legeria:*

- 3104/1978 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, **bibliotekonomia eta dokumentazioko unibertsitate-irakaskuntzak sortzeko dena.**
- 912/1992 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, **dokumentazioko lizentziatuaren unibertsitate-titulu ofiziala ezartzen duena.**
- 543/1995 Errege Dekretua, apirilaren 7koa, **osasan-dokumentazioko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen duena.**
- 1988ko otsailaren 8ko Agindua, esperientzia gisa 1985eko urriaren 21eko Aginduan, **bigarren hezkuntzako bigarren zikloko esperientzia definitzen eta onartzen duenean, aurreikusitako lanbide-moduluak arautzen dituena. Lanbide-heziketa, III. modulua: Bibliotekonomia, dokumentazio eta artxibistikako teknikaria.**

### **3.3. Bibliotekonomia eta dokumentazioko unibertsitate-ikasketak**

#### *3.3.1. Bibliotekonomia eta dokumentazioko unibertsitate-ikasketak Espainian<sup>(14)</sup>*

Bibliotekomiako eta dokumentazioko ikasketak Espainian 1978 arte formalizatu ez baziren ere, badira diziplina honen irakaskuntzan aitzindari izan diren hainbat ekimen.

Madrilgo Eskola Diplomatikoko (1856), Liburutegi Nazionaleko Bibliografia eta Dokumentu Ikasketen Zentroko (Kultura Ministerioa, Madril), Madrilgo Unibertsitateko Konplutentseko Informazio Zientzien fakultateko Dokumentazioko goi-mailako eskolako eta *l'Escola Superior de Bibliotecàries* deiturikoko (Bartzelona, 1915) ikasketa ezagunez gain, gure inguruan, Bartzelonakoaren ereduari jarraitzen zion eskola sortu zen Nafarroako Unibertsitatean. Hirurogeita hamarreko hamarkadan eman zituen eskolak Nafarroako Unibertsitateko Liburuzainen Eskolak, Álvaro D'Ors-ek 1952az geroztik sustatu bazuen ere.

70eko hamarkadan, liburutegiak eta dokumentazio-zentroak gero eta konplexuagoak zirela eta, begi-bistako egin zen bibliotekonomiaren eta dokumentazioaren inguruko prestakuntza espezializatu eta unibertsitarioaren premia. Horren lekuko da diziplina horiek unibertsitate-irakaskuntzan barne hartzea eta urte horietan graduondoko programa eta ikastaro espezializatuak kopuru handia eskaintzea (horietako batzuk erakunde ofizialek antolatu zituzten eta beste batzuk unibertsitateek). Horien guztien emaitza ikasketak ofizialtzea izan zen.

Prozesu hori guztia 1978an amaitu zen, bibliotekonomiako eta dokumentazioko ikasketak formalizatu zirenean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Espainiako unibertsitate-sistemaren baitan ikasketa horiek sortzeko dekretua argitaratu zuenean. 1981ean argitaratu ziren ikasketa horiek emateko sortuko ziren eskolek aintzat izan beharreko jarraibideak.

Horietako lehenak, *l'Escola Universitària de Biblioteconomia i Documentació* izeneko Bartzelonako eskolak, 1982-1983 ikasturtean inauguratu zuen ikasketa-plan ofiziala. Hurrengo ikasturtean Granadako Unibertsitateko unibertsitate-eskolak ekin zion bere bideari, eta honakoak izan ziren horiek eskaini zituzten hurrengo unibertsitateak: Salamancakoa (1987), Murtziakoa (1988), Zaragozako (1989), Carlos III eta Konplutentsea (1990), Leongoa (1991), Extremadurakoa (1994), San Pablo-CEU (1994), Coruña-koa eta Valentziakoa (1996) eta Vic-ekoa (1998).

Bibliotekonomia eta Dokumentazioko diplomatura hiru urtetan ikasten da eta 185 eta 205 kreditu artean izaten ditu, unibertsitatearen arabera.

Bigarren zikloaren eskaera ez zen gauzatu 1992 arte, alegia, Dokumentazioko lizentziatura onartu zen arte, ikasketei buruzko planarekin batera. Lizentziatura unibertsitateko bigarren zikloko ikasketa gisa antolatu zen, eta bertara zuzeneko sarbidea zuten Bibliotekonomiako eta Dokumentazioko diplomatuek. Halaber, beste diziplina batzuetako diplomatuek eta lizentziatuak eta unibertsitateko lehen zikloa

amaituta zuten ikasleak ere sar zitezkeen bigarren ziklo horretan, prestakuntza-ikastaro osagarria eginez gero.

1994-1995 ikasturtean Alcalá, Carlos III, Granada eta Salamancako unibertsitateetan jarri zen martxan Dokumentazioko lizentziatura. Ondoren beste unibertsitate batzuetan ezarri dira ikasketa horiek: Konplutentsean (1996), Extremaduran eta Valentziako Politeknikoan (1997), Bartzelonan eta Murtzian (1998), Bartzelonako Autonomoan eta Oberta de Catalunya-n (1999) eta Coruñakoan (2003).

Dokumentazioko lizentziatura bi ikasturtetan egiten da, eta 120 kreditu ditu. Prestakuntza osatzeko ikastaroak 40 eta 45 kreditu artekoak dira.

Aipatzekoa da hainbat unibertsitatek hirugarren zikloko ikasketak ere eskaintzen dituztela, eta 2002 inguruan hainbatek irakurri zituztela beren tesiak unibertsitate-ikasketa guztiak (diplomatura, lizentziatura eta doktoregoa) dokumentazioaren adarrean egin ostean.

Lizentziatura ematen duten unibertsitateen artean, seik dokumentazioko fakultateak sortzea erabaki dute ("Dokumentazio-zientziak" Alcalá de Henares-en, "Dokumentazioa" UOCn, "Bibliotekonomia eta Dokumentazioa" Bartzelonan, Extremaduran eta Granadan, eta "Itzulpengintza eta Dokumentazioa" Salamancan). Beste lauk lizentziatura aurrez zeuden komunikazioko fakultateetan barne hartzea erabaki dute ("Komunikazioa eta Dokumentazioa" Murtzian, "Humanitateak, Komunikazioa eta Dokumentazioa" Carlos IIIan, "Komunikazio-zientziak" Bartzelonako Autonomoan, eta "Informazio-zientziak" Madrilgo Konplutentsean). Beste batek "Humanitateen fakultatean" txertatu ditu, Coruñak hain zuzen, eta beste batek, Valentziako Politeknikoak, "Informatika fakultatean".

2004ko martxoan Informazio eta Dokumentazioko Gradu-titulua Ebaluatzeko Batzordeak (bertako kide dira dokumentazioaren inguruko diplomaturak eta lizentziaturak ematen dituzten Espainiako unibertsitate guztiak) honako azken agiri hau aurkeztu zuen: *Informe de la Comisión de Evaluación del diseño del Título de Grado en Información y Documentación*. Bertan Espainiako unibertsitate-ikasketak egokitzea proposatu zen, Europako unibertsitateekin bateratzeko, Boloniako prozesua deritzanaren bidetik.

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu artxibozainek artxibistikako unibertsitate-titulazio propioa lortzeko egindako eskaera. Askoren ustez, artxibistikari ez zaio arreta nahikoa eskaintzen egun dauden diplomaturen eta lizentziaturen ikasketa-planetan.

Estatuko artxibozainek osatutako elkarte profesionalen lan-talde batek Artxibistika eta Dokumentuen Kudeaketako lizentziatura sortzeko proposamena aurkeztu zuen 1998an. Bigarren zikloko titulazioa eskatzen dute, gure kultur inguruneko herrialdeekin bat etorriz. Nahi hori behin eta berriz agertzen da Espainiako autorerik ezagunenen bibliografia artxibistikoan.

2002an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak Artxibistika eta Dokumentuen Kudeaketako Goi-mailako Eskola sortu zuen, bigarren zikloko titulu propioa eskaintzeko. Hori jardun aitzindaria izan zen Espainian.

### *3.3.2. Bibliotekonomiako eta dokumentazioko unibertsitate-ikasketak Euskadin*

Euskadin ez da inoiz izan artxibistika, bibliotekonomia eta dokumentazioko ikasteka ofizialen prestakuntza-eskaintza jarraiturik. Haatik, liburutegien eta dokumentazio-zentroen konplexutasuna gero eta handiagoa denez, begi-bistako bihurtu da adar horietako prestakuntza espezializatu eta unibertsitarioaren premia. Horren erakusgarri ditugu graduondoko programak eta ikastaro espezializatuak, eman direnak eta ematen direnak.

EHUko Arabako campusean *Artxibistika masterra* eskaini zen 1991 eta 1996 urteen artean. Hiru edizio izan zituen, programa bi urtekoa (1991-92, 93-94 eta 95-96) eta 56 kreditukoa (560 ordu) zelako. 120 lagunek egin zuten masterra (40 lagunek edizioko), baina aurrez izena eman zutenak 160, 80 eta 50 izan ziren edizioko, hurrenez hurren. 1997an eten egin zen, ez zelako nahikoa ikasle izan.

EHUko campus horretan bertan *Bibliotekonomia eta Informazioaren Kudeaketako unibertsitate-masterra* irakasten da 1990az geroztik. Bi urteko iraupena izan zuen zazpigarren edizioa arte. 2005eko udazkenean zortzigarren edizioa zen hastekoa, 60 kredituko ikasturte bakarrean egitekoa, baina badirudi ez dela egingo (hori baieztatzeko dago). Bertan 30 eta 40-42 ikasle izan dira edizioko. Beraz, esan genezake 250 bat lagunek egin dutela masterra 15 urte hauetan. Bertan irakasle direnak Euskadin eremu horretan diharduten profesionalak dira. Bestalde, berariazko mintegiak ere antolatzen dira, beste erkidegoetatik eta beste hainbat erakundetatik datozen irakasle gonbidatuekin. 200 orduko praktikaldia egiten da (20 kreditu) eta horretarako hainbat elkarteren lankidetzak izan dute. Hona horiek: Sancho el Sabio Fundazioa, Eusko Jaurlaritza, Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia, EHUko Liburutegia, Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegi publikoa, Nafarroako Liburutegia, Xabide, Eresbil, Emakunde, Hegoa EHUko dokumentazio-zentroak, Europako informazio-zentroa, Gara, Diario Vasco, El Correo eta abar.

Bibliotekonomia, artxibistika eta dokumentazioa dira barne hartzen dituen diziplinak. Honakoak hartzen ditu barne ikasketa-planak:

- Informazio-sistemen antolamendua (3 kreditu)
- Informatika. Datu-baseak eta sareak. Internet (3 kreditu)
- Katalogazioa eta sailkapena (10 kreditu)
- Artxibo-sistemak (3 kreditu)
- Informazio-sistemen administrazioa (3 kreditu)
- Informatika eta teknologia berriak informazio-zentroetan (8 kreditu)
- Hizkuntza dokumentalak (10 kreditu)
- Informazio-zentroetako (liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroetako) praktikak (20 kreditu)

Deustuko Unibertsitateak 1991-1992 ikasturteaz geroztik eskaintzen du honako graduondoko espezializazio-diploma: *Dokumentazioa eta Ondare Historikoaren Kudeaketa. Artxiboak, liburutegiak eta museoak*. Horien aurrekari bibliotekonomiako ikastaro trinko batzuk izan ziren, Liburutegi Nazionalarekin lankidetzan egin zirenak 1989 eta 1992 urteen artean.

Hasiera batean bi urtetan ematen zen (60 / 63 kreditu) eta 1996-1997 ikasturteaz geroztik bakarrean egiten da (50 kreditu). 2001-2002 ikasturtetik aurrera 48 kreditu izan ditu. Liburutegi, artxibo, museo eta dokumentaziora hurbiltzeko ikasketa gisa dago antolatuta, eta ez espezializazio bezala. Prestakuntzak 200 orduko praktikaldia hartzen du barne, alegia, 20 kredituri dagokiena. Ikasketa horiek 300 bat lagunek egin dituzte (20k urteko batez beste).

Deustuko Unibertsitateak Donostian duen Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultateak, ETGEk, *Kultur baliabideen kudeaketako espezializazio-diploma* eskaini zuen 1992 eta 1995 urteen artean. Bertako edukien artean zegoen bibliotekonomia eta artxibistika.

Bergarako UNEDen 2003an ekin zion bere bideari *Liburutegi Laguntzaile Eskola* deiturikoak. Eskolak gaztelaniaz ematen dituzte, UNED-Bergara elkartutako ikastetxearen ikastaro propioen artean. Lehenengo edizioak, 2003-2004 ikasturtekoak, 100 orduko iraupena izan zuen, eta 31 ikaslek hartu zuten parte. Horietatik seik hitzartutako praktikaldia egin zuten hainbat erakundetan. 2004-

2005 ikasturtean egin zen bigarren edizioa, 120 ordukoa, eta berori 34 ikaslek egin zuten.

Portugaleteko UNEDen *Bibliotekonomia, dokumentazio eta artxibistikako ikastaroa* eskaini da 2005. urtean, 180 ordukoa, hain zuzen ere.

1980-1981 ikasturtean "Dokumentazioa" izeneko irakasgaia hasi ziren ematen Bilboko Unibertsitatean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren mendeko Informazio Zientzien unitatearen baitan. 1981-1982 ikasturtean EHU<sup>n</sup> txertatu zen Informazio Zientzien fakultatea. Irakasgaia urtekoa zen eta aukerakoa, eta ez zuen praktikaldirik, 1982ko ikasketa-planaren arabera.

1995eko ikasketa-planaren ondoren, irakasgaiak "Dokumentazio informatiboa" izena hartu zuen, baina ez ziren hasi ematen 1996-1997 ikasturtera arte. Lau hileko irakasgai bihurtu zen, eta bosgarren mailako aukerako irakasgai izatetik bigarren mailako irakasgai ardatz izatera pasa zen.

Gaur egun "Dokumentazio informatiboa" eta "Dokumentazioa komunikabideetan" izeneko irakasgaiak, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Sailak euskaraz nahiz gaztelaniaz ematen dituztenak, dira euskal unibertsitate-esparruan gure diziplinak dituen adierazle bakarrak. Baina, jakina, horiek eskaintzen dutena ikuspegi laburra da, dokumentazioak informazio eta komunikabideetan duen lekura mugatutakoa.

EHUko eta Deustuko Unibertsitateko hainbat karreratan (Informatika, Enpresa-ikasketa, Filologia, Historia eta ingeniarietzan, esate baterako) ematen dira gure diziplinekin zerikusia duten irakasgai ardatz nahiz aukerakoak (fondo digitalen kudeaketa, informazio-sistemak -batez ere ikuspegi teknologikotik-, datu-baseak kudeatzeko sistemak, hainbat esparrutan espezializatutako informazio-iturriak, paleografia, diplomatika, metodoak eta ikerketa-teknikak...).

Merezi du aipatzea, halaber, Udako Euskal Unibertsitateak, UEUK, eskaintzen dituen graduondoko ikastaroak, master (200 ordu) eta espezialista-diploma (300 ordu) izaera dutenak. 2002-2003 ikasturteaz geroztik *Hizkuntza-Teknologiak (HIZTEK)* espezialitatea ematen da, informazioa tratatzearen eta berreskuratzeren inguruko gaiez diharduena (IR information retrieval), informatikaren (lengoaia naturalaren prozesamenduaren) eta hizkuntzaren (kasu honetan, euskararen) ikuspegitik.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da euskal profesional askok bertaratzea eskatzen ez duten unibertsitate edo ikastaroen (tradizionalen eta on line deiturikoen) bidez

ikastea erabakitzen dutela, gure erkidegoan dokumentazioaren gaineko prestakuntza-eskaintza ofizialik ezean.

Honakoak dira nabarmentzekoak: *Artxibistikako unibertsitate-espezialistaren graduondokoa*, UNEDek eskaintzen duena; *Dokumentazio digitaleko on line masterra*, Pompeu Fabra unibertsitateak 1997az geroztik eskaintzen duena; eta amaitzeko, Dokumentazioko lizentziatura, UOck 1999tik eskaintzen duena.

### **3.4. Prestakuntza ez arautua**

Unibertsitatekoa ez den prestakuntzak presentzia handia du gure inguruan. Honakoak bereizi behar ditugu:

- lanbide-heziketa
- ikastaro orokorrak (birziklatzea, espezialitatera hurbiltzea)
- berariazko ikastaroak (etengabeko prestakuntza, espezializazioa)
- jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak
- bekak

#### *4.4.1. Lanbide-heziketa*

*Osasun-dokumentazioko goi-mailako teknikaria* da LH edo lanbide-heziketaren baitan Euskadin, Bizkaian zehatz esateko, eskaintzen den prestakuntza. Fadura goi-mailako lanbide-heziketako berariazko institutuan ematen da, baita Maria Inmaculada (Bilbo), Mikeldi (Bilbo) eta San José Calasanz (Santurtzi) ikastetxe pribatuetan ere.

Horiez gain, Gasteizko elizbarrutiko Molinuevo eskolak *Kalitate-sistemetak* dokumentalistak izeneko ikastaroa eman zuen 2001ean, Caja Vital Fundazioaren laguntzarekin. 200 ordukoa izan zen, lanbide-heziketak berariaz aintzat hartzen ez dituen eremuetarako sortutako lanerako prestakuntzako programaren baitako ikastaro gisa sortutakoa. Programa horrek kontratatzeko konpromisoa zuen hitzartuta Arabako hainbat enpresarekin (horien artean ditugu Afogasca, Burulan, Ergonomic Ingenieria S.L., Inalgas, Mercedes Benz, Proycam S.C., Altaser, Corporación Zigor, Gameko, Laminaciones Arregui, Metraltek, Azpaper S.L., Enesbi, Herramientas Iridoi, Made S.L. eta Moasa). Argi eta garbi erakusten du enpresek kalitatea ziurtatzeko sistemak direla-eta eskatu dituzten dokumentalista-profilen premia.

#### *3.4.2. Ikastaro orokorrak*

Ikastaro orokortzat joko ditugu lanbidearen ikuspegi osoa ematea helburu dutenak. Gehienetan sarrera gisakoak izaten dira, eta birziklatzea edo lanik gabe

dauden langileak informazioaren eta dokumentazioaren eremuko lanbidera bideratzea izaten dute helburu. ALDEEK espezialitateko 500 prestakuntza-ordu egiaztatzen dituztenak bakarrik jotzen dituen arren profesionaltzat, atal honetan irakastordu gutxiagoko ekimenak hartu ditugu barne, unibertsitatei eskainitako atalean egin dugun bezalaxe.

1988 eta 1990 urteetan Irargik *Artxibistika eta ondare dokumentalari buruzko ikastaroaren* hiru edizio antolatu zituen, 300 ordu ingurukoak.

*Dokumentazioko teknikak*, Fondo Formación enpresak eta Eusko Jaurlaritzak (Lanbide) antolatutakoa.

*Liburutegietako eta dokumentazio-zentroetako laguntzailea*, Fondo Formación enpresak eta Bizkaiko Inem-ek antolatuta. Gipuzkoan ere eman da (Andoain).

Elai-Alai fundazioak *Liburutegi eta dokumentazio-zentroetako laguntzailearen ikastaroa* antolatu du, Baratz-ekin batera. Ikastaroa 500 ordukoa izan da.

Gasteizko Udalaren Informazio eta Komunikazio Teknologien Ikastegiak, CETICek, *Mediatekako kudeatzaileak eta Interneteko zerbitzuak* izeneko ikastaroa antolatu zuen 1998-1999 ikasturtean. 470 ordukoa izan zen eta 10 lagunek egin zuten ikastaroa.

2003-2004 ikasturtean *Teknologia berriak informazioaren kudeaketan* izeneko antolatu zuen, 400 ordukoa eta 15 ikasle izan zituena. Gisa honetako irakasgaiak eman ziren: dokumentazioa informazioaren gizartean, informazioa bilatzea eta berreskuratzea, informazioa tratatzea, informazioa zabaltzea, informatika-sistemak edo informazioa antolatzea eta aurkeztea.

*Enpresan dokumentuak kudeatzeko teknikak* ikastaroa ere eman zen.

2005-2006 ikasturtean *Informazioaren kudeaketa* izeneko emango da, 400 ordukoa.

Lan Ekintza Bilboko Udaleko sozietate publikoak *Informazioaren kudeaketarako sistemak eta Internet* ikastaroa antolatu zuen 1999an, eta 300 ordu inguruko iraupena izan zuen.

Zumarragan *Liburutegiko eta dokumentazio-zentroko laguntzaile* ikastaroa ari dira ematen 2005eko udazkenean. 250 ordukoa da eta Inem-ek eta Zumarragako Udalak antolatu dute.

Inem-en ekimenak Euskadiko hainbat herritan gauzatu dira azkeneko urte hauetan.

#### 3.4.3. Berariazko ikastaroak

Berariazko ikastarotzat joko ditugu jardunean diren profesionalei prestakuntza espezializatua ematera bideratutakoak. Oso ekimen espezializatuak izaten dira eta iraupen laburrekoak.

Urte hauetan hainbat erakundek antolatu dituzte gisa honetako ikastaroak. Hona hemen:

- Administrazio publikoa eta erakunde autonomiadunak: Cetic, Dema, Inem, Euskadi Enpresa Digitala, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, Lan Ekintza, teknologia-parkeak, Zaintek, Konekta Zaitetz programa...
- Elkarteak eta sozietateak: Gipuzkoako Bibliotekarien Elkartea, ALDEE, Arabako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofiziala, Eusko Ikaskuntza...
- Fundazioak: Elai-Alai
- Enpresa pribatuak: Baratz, CDE, Fondo Formación, Odei, Sarenet...
- Unibertsitateak: EHUko Hegoa, UNED-Bergara, UNED-Portugalete

#### 3.4.4. Jardunaldiak: mintegiak eta kongresuak

Orain arte antolatu diren jardunaldi, mintegi, kongresu eta antzekoak ere baliagarri dira gure ingurunean izan dugun prestakuntza-eskaintza haztatzeko. Ordena kronologikoari jarraiki aipatuko ditugu:

- *Eusko Ikaskuntzen X. Kongresua*, Eusko Ikaskuntzak antolatutakoa, Artxiboak, liburutegiak eta museoak izenekoak izan zen 1987an.
- *Liburutegi publikoen jardunaldiak*, Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkartek antolatutakoak. Lehenak 1988an egin ziren eta azkenak, zazpigarrenak, 1995ean.
- *Euskadiko artxibistika-jardunaldiak, I eta II*. Iragi, Bilbo, 1990 eta 1992.
- *Artxibistikako nazioarteko mahai-inguruak, I eta II*. Iragi, Donostia, 1991 eta 1994.
- *Dokumentazioari buruzko Espainiako VII. jardunaldia*. Fesabid, Bilbo, 2000.

- *VIII Symposiuma Hiria eta Kultura: ekintza-estrategiak agiritegi, biblioteka eta dokumentazio-guneetarako*. Gasteiz, Valentín de Foronda institutua – EHU, 2002.
- *Arte Garaikideko dokumentazio-zentroen I. topaketa*. Artium, Gasteiz, 2002.
- *Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari buruzko I. Jardunaldia*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, ALDEE, Donostia, 2003.
- *Euskal ondare bibliografikoari buruzko mintegia*. Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua eta Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz, 2003.
- *Arte Garaikideko dokumentazio-zentroen II. topaketa*. Artium, Gasteiz, 2004.
- *Gaur egungo historiari buruzko Agiritegiak eta Artxibo Historikoak Jardunaldia: "Euskadiko Artxibo Nazionala" (1987-2005)*. Eusko Ikaskuntza, Bilbo, 2005.

#### 3.4.5. Bekak

2004. urtean 8 beka deialdi egin ziren Euskadin artxibo, liburutegi eta dokumentazioaren inguruan. Honakoak izan dira eskaintzaileak:

- ARTIUM
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Saila
- Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Saila
- Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua
- Guggenheim Bilbao
- SHEE
- Sancho el Sabio Fundazioa

Beste askotan ere eskaini dira bekak, hainbat izenburu izan dituzten arren, besteak beste, modu batean zein bestean dokumentazio-funtsekin zerikusia duten lanak egiteko baliagarri izan direnak. Horien artean ditugu Sabino Arana Fundazioa, Euskaltzaindia, Lazkaoko Monasterioa eta beste hainbat.

Amaitzeko, ezinbestean aipatu behar dugu EHUK ikasleen artean unibertsitate-liburutegian laguntzeko egin ohi duen beka-deialdia (ikasle horiek bigarren edo hirugarren ziklokoak izaten dira, unibertsitate-eskoletako azkeneko bi mailetakoa, tesia edo karrera amaierako proiektua irakurtzeko dutenak eta

masterretan eta graduondoko ikastaroetan matrikulatuta daudenak). Hogei urte baino gehiagotan egin da horietarako deia. Gaur egun 10 hilabeteko iraupena dute, baina berri ere egin daiteke, eta zenbatekoa 3.606 eurokoa da. 2004/2005 ikasturteko deialdian 84 plaza eskaini ziren. 2005eko maiatzean deialdi berezia egin zen 83 beka eskaintzeko.

### **3.5. Profesionalak**

Euskadiko profesionalik gehien-gehienak letretako ikasketak eginikoak izan dira tradizioan (Historiako ikasketak nagusiki, baina baita Filologiakoak ere), eta dokumentazioaren arloko berariazko graduondoko ikasketen sostengua izan dute azken urteetan. 1986. urte aurretik ez zen Bibliotekonomian eta Dokumentazioan diplomatutako pertsona bakar bat ere izan Euskadin, ezta Dokumentazioan lizentziatutakorik ere 1996. urte aurretik.

Profesionalen prestakuntzaren inguruko xehetasunetarako, ikus lan-talde honek gauzatutako material estatistikoaren moldaketa (argitalpen honetan bertan).

Edozein moduz, oinarrizko prestakuntza alde batera utziz, gauza jakina da profesionalak dagozkien lanpostuetako eguneroko zereginak betez lortzen dutela egiaz beren garapena, denboraren joanean. Lantokiaren, lan-baldintzen edo zerbitzu-motaren arabera tipifikazio sakondu gabea egin genezake, orain, profesionalen inguruan.

#### *3.5.1. Profesional-motak lantokiaren arabera:*

- Artxibo historiko eta bitartekoetan aritzen diren profesionalak, batez ere administrazio publikoan (kontzejuak, koadrila edo eskualdeak, udalak, esparru foralak, EAEko administrazioa, erakunde publiko autonomoak, Estatuaren administrazio zentrala eta probintziala, eta abar) eta esparru pribatuetan (fundazioak, elkarteak, partikularrak, eliza...).
- Kudeaketa-artxibo eta bitarteko artxiboetan aritzen diren profesionalak; enpresetan eta administrazio publikoan.
- Udaletako, unibertsitateetako, ospitaleetako, eskoletako... liburutegietan aritzen diren profesionalak
- Dokumentalistak (erakunde publiko, misto eta pribatuetan).

#### *3.5.2. Profesional-motak lan-baldintzaren arabera:*

- funtzionarioak

- enpresetan dokumentalista gisa
- enpresa dokumentaletan
- enpresaburuak
- azpikontratazioak
- autonomoen erregimenean
- mikroenpresak
- bekadunak

### 3.5.3. Profesional-motak zerbitzu-motaren arabera:

- Enpresa pribatuen zerbitzura lan egiten duten dokumentazio-zentro eta informazio-unitateak (zainketa teknologikorako zerbitzuak, patente-zentroak, informazio estrategikorako sistemak, enpresa-informaziorako zerbitzuak, irabazi-asmoko erakundeetako artxibo- eta liburutegi-unitateak eta abar).
- Administrazioaren eta hiritarren zerbitzura lan egiten duten dokumentazio-zentro eta informazio-unitateak (liburutegi publikoak, eskola-liburutegiak, artxibo administratiboak, hiritarrentzako informazio-zerbitzuak, fundazio eta elkarten informazio-zentro eta liburutegiak...).
- Ikerketaren, zientziaren eta teknologiaren zerbitzura aritzen diren dokumentazio-zentro eta informazio-unitateak (unibertsitate-liburutegiak, liburutegi espezializatuak, dokumentazio-zentroak, artxibo historikoak eta abar).

Profesionalen lan-esparru eta -baldintzen inguruko xehetasunetarako, ikus lan-talde honek gauzatutako material estatistikoen moldaketa (argitalpen honetan bertan).

Azkenik, eta ikusirik txosten honen 3.11 atalean halako xehetasunez errebasatzen dela enpresa pribatuetan aritzen diren informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalen egoerari buruzko hainbat alderdi, beste zenbait aipamen tartekatu dira udaletako edo tokiko erakunde txikietako (koadriletako...) artxibo, liburutegi edo dokumentazio-zentroetan administrazioarentzako lanean ari diren profesionalen lan-egoerari buruz.

Azpimarratzekoa da negargarria dela, gaur egun, euskal udalerrietan artxibo eta liburutegietako langileen kudeaketaren inguruan gertatzen ari den egoera. Langile hauenganako begiramen eta aitopen eskasak ez ezik ematen zaizkien ordainsariek ere, agerian uzten dute udalek beren informazio- eta dokumentazio-

zerbitzuei buruz (direla dokumentu publikoen bildumak, direla bilduma bibliografikoak eta mediatekak –artxiboak edo liburutegiak–) duten begiramen eskasa.

Lanpostuei egozten zaizkien kategoria eta maila baxuak ez datoz bat langileei egozten zaizkien zeregin eta egiteko zabal eta xeheekin. Ondorioz, zenbait kasutan, udal administrazioko D mailako langileek hertsiki teknikoak diren zereginak bete behar izaten dituzte, edota unitate dokumentalen kudeaketa- eta zuzendaritzalanean jardun behar izaten dute C mailako langileek.

Honi guztiari beste arazo bat gehitu behar zaio: langileek bakarrik egin ohi dutela lan, zerbitzu hauek gehienak pertsona bakarrak betetzekoak izaten baitira.

#### *3.5.4. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalaren rol-aldaketa*

Profil profesionala bilakatu eta beronen zereginak aldatu izanaren ondorioz (zereginak eraldatuz eta desagertuz, eta berriak sortuz) sortzen ari den egoera honetan, elkarrekin bizi dira gauzatze bidean diren rol berriak ez ezik tradizionalak ere. Ez dira zaharkiturik gelditu azken hauek.

Honek, jakina denez, arazo berriak sortzen ditu. Izan ere, esparru berriak eta zeregin nahiz prozesu berriak ireki ahala, galdera saihestezinak sortzen dira, hauei loturik, erronka berriei aurre egiteko moduari buruz.

Sorturiko arazoan, eztabaida profesionalik sutsuenen edo konpondu gabeko auzien artean, honakoak dira aipatzekoak:

- Artxiboko dokumentuen euskarri berriak. Informazio multimediaren aldakortasuna. Euskarri berriak kontserbatzeko arazoak.
- Internet eta liburutegi edo artxiboa lokal fisiko gisa; dokumenturako sarbidea izatea dokumentua bera edukitzearen ondoan.
- Artxibo irekiak (*open access*, Budapest-eko ekimena...), eta aldizkari elektronikoen eta material digitalen zabalkuntza.
- Informazio-iturri moten, eta iturri horien formatuen eta euskarrien bilakaera.
- Datuak babestea eta informazioa eskuratzeko eskubidea.
- Informazioa erakundeetako balio estrategiko gisa.

- Sarearen eta multimediararen ingurunerako katalogazioa (FRBR, metadatuak, Dublin Core, XML, edukien sindikazioa...)
- Ezagutza esplizituaren kudeaketa, ezagutzaren kudeaketaren alderdi gisa.
- Ekoizpenaren paradoxa IKTekin, eta paperaren erabilera gutxitzearen inguruko paradoxa. Paperaren balizko desagertzearen leherketa dokumental berrira.
- Hezkuntza, ikaskuntza, eta dokumentazio-zentroen prestakuntza- eta alfabetatze-egitekoa.

Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalentzat irekitzen ari den esparru hau bereziki erakargarria bilakatu da, baita etorkizun handikoa ere. Hona hemen hori eragin duten arrazoiak: dokumentazio-zentro edo informazio-unitateen beraien izaera garatu izana, lanbide honetan gertatzen ari diren rolanaketak eta dokumentazio-zientziak finkatu izana.

Gure esparrutik beretik beste diziplinekin lankidetzan jarduteko aukera handi bat bailitzan agertzen da etorkizuna, mota guztietako erakundeetan eragingarritasun maila handiagoa lortu ahal izateko. Betiere, erronka eta arazo berriei konponbidea emateko beharra salbuetsi gabe, eta prozedurak babestuz eta metodologiak egiaztatuz.

Informazioa eta jakintza guztien eskura jartzeko nahiak bere horretan dirau eta inguru berrietara heldu da. Izaera publikoko zerbitzu sozio-kulturalen ikuspegi klasikotik asmo handiagoko erakunde-garapenerako programak erakartzeko eta laguntzeko zereginen hedapenera; administrazioaren eta liburutegi publikoen artxiboen tradiziotik beste zenbait esparruri laguntza ematera bideratutako dokumentazio- eta informazio-zentroetara, hau da, irakaskuntza eta ikaskuntza, kultura eta ezagutza, mota guztietako administrazio-unitateak, enpresak, eta oro har gizarte-ehun osoa, helburu dituztenetara.

Gaur egun inoiz baino egingarriagoa da, informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalentzat, euskal gizartearen eta ekoizpenaren maila guztietara iristeko modua antolatzea. Baina, horretaz gain, beharrezkoa da zeregin horri heltzea, positiboa izango baita erakundearen garapenerako. Izan ere, irtenbide eragingarriak emango dizkiete ekoizpen-sektoreei, informazioaren kudeaketan sortu zaizkien erronka handietako batzuk konpondu ahal izateko. Erronka berri horiek garai digital honetara egokitzearen sortutakoak dira.

Informazioaren gizartean, informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalak betetzen dituzten hainbat rolen bidez ematen zaio euskarria, besteren artean, erakunde-kudeaketari.

Ikuspegi honen arabera, egokia eta guztiz baliozkoa litzateke, itxura batera, dokumentazioaren inguruko bigarren zikloko ikasketak sortzea Euskadin.

Azterketak ezartzeko ereduak herrialdeko ekoizpen-errealitatearen eta enpresa-tradizioaren araberakoa izan beharko luke, baita ezagutzaren gizartean etengabe eraldatzen ari diren erakundeen beharrei egokiturikoa ere.

Azkenik, berariazko aipamena merezi du Euskadi Informazioaren Gizartean Planak<sup>(15)</sup>, euskal gizartea aro digitalera moldatzea bultzatzea du xede. Hiru jarduera esparruren gainean biratzen du: erabiltzaileak (hiritarra, enpresa, administrazioa), testuingurua (azpiegiturak, teknologia, arauak) eta edukiak (e-prestakuntza, e-osasuna, Euskadi sarean, edukien sektorea).

Orain arte, batik bat azpiegitura eta ekipamenduetan eragina izan du (etxean, enpresan, ikastetxeetan eta administrazioan), eta eten digitalaren erabileran eta hausturan (hornitutako, konektatutako eta prestatutako organismo- eta erabiltzaile-kopurua; sarean duten presentzia; teknologia zehatzen erabilera; etab.). Edukien alderdia geldiago doa, Planak berak onartzen duen bezala.

Komeni da atentziora jartzea programak bere jarduerak zuzentzerakoan duen ikuspegi ia soilik teknologikoan. Kalitateko informazioari buruzko aipamenak soilik proiektuaren helburuetako aurkezpeneko paragrafoetan agertzen dira. Ez da ondoko eremuetan eragina izango duten laneko lerrorik antolatu: bilaketa eta berreskuratzea; ebaluazioa eta analisia; deskribapena, ekoizpena edo zabalkundea... eragiketen multzo integratu eta sistematiko gisa kalitateko informazioaren erabilera bermatuko luketenak.

Edukiei dagokienez, planak soilik industria ekoizleei dagokiona lantzen du. Baina informazio ekoizleen (sorkuntza, ekoizpena, edizioa) eta informazio emaileen (argitalpena, banaketa) sektoreari buruzko guztia, Planean gutxien bultzatu dena da.

Bestaldetik, gaur arte Planaren jarduera-ildoetan<sup>(16)</sup> ez da informazioaren eta dokumentazioaren profesionalen inolako lankidetzarik kontuan izan.

KZgune<sup>17</sup> ezagunen esteken atala bisitatu besterik ez da egin behar, ondo beharrez egin dela jakiteko; baina informazio-kudeaketan ezagutza gutxi duten lagunek egin dutela ikusten da.

Eta planak antzematen duen profesionalen profilaren eskaerari dagokionez, soilik IKTetara (informatikoak) zuzeneko lotura dutenak aipatzen dira, nahiz eta hauxe onartu:

*“Teknologia berrien ezarpenak sektore guztietako profesionalen prestakuntza eta birziklatze prozesua eskatzen du. Horrez gain, baita ere eskatzen du orotariko espezialitate eta teknika berrietan prestatutako profesionalak, kultura digital berri bat konpartitzen dutenak”<sup>(18)</sup>*

Ezagutza eta informazioaren gizarteari dagokionean Eusko Jaurlaritzaren jarduerak duten ikuspegi teknologikoari dagokionez, Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen *Profil Profesional berriak Ezagutzaren Aroan*<sup>(19)</sup> azterketa dago. Txostenak ez du izenburuan dioena eskaintzen, eta informatikarekin zerikusia duten profilak aztertzeraz mugatzen da.

Euskadin eta adierazitakoaren arabera, aro digitalera egokitzeko planetan dokumentazio zientzien bektorea sartzea falta da. Informazioaren eta ezagutzaren gizartera lotutako rol berriak aztertze eta definitze ahalegina eskatzen da diziplina anitzeko ikuspuntutik; eta, horrek aldagai teknologikoa soilik kontuan duen ikuspegi mugatutik ihes egitea eskatzen du, eta, hainbat diziplinetako ekarpenek sarbidea izatea, eta horien artean egongo lirateke jakina informazio eta dokumentazioaren profesionalen ekarpenak.

### **3.6. Euskara**

Euskarak artxiboen munduan duen presentzia hizkuntza honetan eginiko ekarpenetan aurki daiteke; *Irargik* 1994. urtera bitartean eginiko argitalpen profesionaletan eta *Badator* datu-basearen kontsulta-interfazean.

Liburutegien munduan, ia hamabi ere ez dira, Euskal Herri osoan, beren katalogoetan euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen dutenak. Ia guztiak EAEkoak dira.

Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak eta HABEko liburutegiak euskara hutsezko katalogoak dituzte. Bizkaiko Foru Liburutegiak eta Koldo Mitxelena Kulturunea liburutegiak euskara eta gaztelania tartekatzen dituzte beren katalogoetan. Eusko Jaurlaritzan Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak Legezko Gordailuaren funtsak euskaraz katalogatzen ditu 2000. urtetik<sup>(20)</sup>.

Bibliotekonomiari buruzko seiren bat liburu argitaratu da euskaraz (horietan gehienak itzulpenak).

Era berean, itzultzen ari dira Katalogazio Arauak ere, eta Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak aurreikusirik du bibliotekonomiari buruzko ildo editoriala osatzera etorriko den hainbat material euskaratzea ere.

EAEko eskola-liburutegietako materialaren % 34 da euskarazkoa. Gaztelania da gailentzen den hizkuntza, lanen % 64rekin. Eta oso deigarria da EAEko hizkuntza ofizialak ez diren gainerako hizkuntzetako lanak % 4 baino ez direla<sup>(21)</sup>.

Iwetel zerrendak, 1999ko azaroan, 2.500 parte-hartzaile zuen, eta horietan %2 ziren euskaldunak. 2005eko martxoan, 5.000 parte-hartzaile izatera iritsi da zerrenda, eta ez da ezagutzen munduko dokumentazio-zerrendarik jendetsuena den honetan dagoen euskaldun-kopurua<sup>(22)</sup>.

### **3.7. Asoziazionismoa**

1985. urtean Euskadiko eta Nafarroako artxibozain, liburuzain eta dokumentalisten elkarte bat sortzeko saiakera bat izan zen, baina porrot egin zuen.

Lehendabiziko aurrekariak kokatzeko, hortaz, 1987. urtean sorturiko *Asociación de Bibliotecarios y Documentalistas de Gipuzkoa – Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkarte*a aipatu behar dugu. Elkarte hau udal liburuzaintzat antolatutako katalogazioari buruzko ikastaro baten haritik sortu zen. Ikastaro hura Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. 2001. urtean *ALDEE*n sartu zen. Elkarte 230en bat bazkide edukitzera ere iritsi zen, nahiz eta 180 inguru zituen *ALDEE*ekin bat egin zuen garaian. Izan ere, Nafarroako bazkide-kopuru mordoskak baja eman zuen urte batzuk lehenago, Nafarroan beraien liburuzainen elkarte propioa sortu eta gero.

1988 eta 1991 urteen artean, berriz, *Asociación Guipuzcoana de Archiveros* ere izan zen, eta 40 bazkide edukitzera iritsi izen. Batzarrean, ordea, kolektiboa desegiteko erabakia hartu zen, bertako kideak *ALDEE*n sar zitezten banan-banan. Horrenbestez, desegin egin zen elkarte.

*ALDEE Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación - Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte*a 1990. urtean sortu zen. Bere helburuetako bat, bertako kideen garapen profesionala sustatzea da, baita kontzientzia handiagoa har dezaten ere, EAEko beren lanbide-esparruaren inguruko asmo eta errealitateen inguruan. 2001. urtean gipuzkoarren elkarteari ireki zizkion ateak. Gaur egun 464 bazkide ditu.

Azkenik, 1997. urtean *Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia* sortu zen, euskal hizkuntzaren esparrutik bibliotekomiaren munduan lan egin ahal izateko. 20 kide aktibo ditu. Posta-zerrenda ere badu Interneten, 1999an sortutakoa, eta 150en bat profesionalak hartzen du parte bertan (148 2005/02/1ean)

Bestalde, lanbide-elkargorik ez dagoela aipatu behar da. Honakoa da elkarteen eta lanbide-elkargoen arteko oinarrizko aldea: azken hauek berariazko titulazio baten inguruan daudela antolatuta eta, gainera, behartutako solaskide eta aholkulari direla administrazio publikoarentzat, beraien eskumeneko gaietan.

Zentzu honetan, profesionalen prestakuntzaren heterogenotasuna ikusita, ez litzateke gomendagarria izango kolegiatzeko inongo ekimenik formulatzea; gaur egungo profesional aktiboek % 83tik % 87ra (ehunekoak aldatu egiten dira kontsultatutako iturriaren arabera. Ikus prestakuntzari buruzko datu estatistikoak lan-talde honek eginiko berariazko txostenetan, argitalpen honetan bertan) ez bailitzateke balizko elkargo bateko kide izateko moduan egongo.

### **3.8. Ekipamenduak. Artxibo, liburutegi eta dokumentazio-zentroak Euskadin**

Lehenik eta behin aipatzekoa da, ez dagoela EAEn, gure lanbideari dagokionez, gaur egungo liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroak zenbatzen dituen baliabide xehatu eta eguneraturik.

Bada oso aurrekari ezagun eta erabili bat, baina ez dago eguneratuta. Eusko Ikaskuntzaren liburutegien erroldaz (1989)<sup>(23)</sup> eta artxiboen erroldaz (1986-88)<sup>(24)</sup> ari gara:

Bestalde, ALDEEK dokumentazio-zentroyen direktorio-saiakera egina du. Aipaturikoa 90eko hamarkadan egin zuen erakunde honen beka baten bidez. Hau ere eguneratu gabea da, eta ez da inoiz argitaratu izan.

Direktorio orokor baten gabezia hori konpontzeko ahaleginean ari da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Horretan dihardu lanean gaur egun.

Egia esan, orain artean, anabasarik guztizkoenak eta desinformazioak lausotu egin ditu Euskadiko establezimendu-kopuruaren berri jakiteko ahalegin guztiak. Administrazio publiko bakar batek ere ez du euskal dokumentazio-zentroyen mapa marrazteko lagungarri izango litzatekeen daturik eskaintzen. Eustatek, EINek, Kultura Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak beren web-orrietan argitaratzen dituzten datuak partzialak dira, urteko segidarik gabekoak eta

kontraesankorrak. Datu hauek hainbat baliabide estatistikoren, atariren, direktorioren eta errolda-giden bidez argitaratzen dituzte.

Egia da, dena den, Estatuaren administrazioa liburutegien inguruko datuak jasotzen hasia dela orain gutxi, baina ematen diren datuak ikusita, badirudi ez dagoelako inolako koordinaziorik artxiboen gaian.

Orain argitaratu berria den Espainiako liburutegi publikoen egoerari buruzko 2000-2003ko txostena gainbegiratzea nahikoa da datuen adostasunik ezaz jabetzeko<sup>(25)</sup> (hiriburuetakako liburutegiak falta dira, foruetako titulartasuna edo kudeaketa dutenak, kasuaren arabera). Herrialde honetan behar den koordinazioak lau kultura-sailen beharra izango luke...

EAEren kultura-ekipamenduei dagokienez, eta ekipamendu bereizgarriekin batera (artxibo foralak eta probintzialak, hiriburuetakako udal liburutegiak, liburutegi foralak, elizbarrutiko artxiboak, itzal handiko liburutegi eta artxiboak: Euskaltzaindia, Sancho el Sabio, Eresbil, Gasteizko seminarioa, Lazkaoko monasterioa...), Euskadiko liburutegi nazionala eta artxibo nazionala aurreikusten direla aipatu behar da, dagozkien sistemetakoko buru izateko.

Edozein kasutan, herrialdearen bilakaera politikoaren esku egongo da hauek sortzea edo ez. Hauen egokitasunari buruzko eztabaida ere, teknikoak ez diren gai eta interesetara ari da bideratzen, eta planteamendu politiko eta aukerazkoen baldintzapean dago.

Bestalde, azken urte hauetan zentroen sareak ari dira indarra hartzen liburutegi zein artxiboetan. Oraindik ere, partzuergoek edo lankidetzan garatutako proiektuek hitz egiteko aukerarik gabe jarraitzen badugu ere (agian bakar-bakarrik *Liburutegi digitala-Biblioteca Digital Vasca*<sup>(26)</sup> aipatu ahal izango litzateke), ohikoagoak direla esan daiteke alderdietakoren batek aurretiaz garatutako baliabideak partekatzen dituzten lankidetzak-ekimenak eta -proiektuak. Aipatzea merezi du liburutegietan (*Bilgunea*<sup>(27)</sup> katalogo kolektiboa) eta udal artxiboetan<sup>(28)</sup> (baita koadriletako eta kontzejuetakako artxiboetan ere, Araban) sistemetakoko buruak egiten ari diren ahalegina.

Azpimarratzekoa da, azkenik, azken hamabost urte hauetan ezin geldituzko abiadan ugaritu direla "informazio- eta dokumentazio-zentroak" gizarte-esparru guztietan. Ohikoak dira unibertsitateetan, administrazio publikoetako estamentu, instantzia eta maila ezberdinetan, enpresetan eta mota guztietako enpresa-erakundeetan, sindikatuetan, GKEetan, elkarteetan, elizan eta abar.

Beraien jarduteko moduak, baliabideak eta betekizunak askotarikoak dira, baina guztiek dute batean helburu bat: beren erakundeak informazioz hornitzea eta dokumentazioa modu zabalean kudeatzea.

Euskadin bibliobus bakar bat izan da urte askoan. Arabako Lurralde Historikoan liburutegi publikorik ez zuten udalerriei eskaintzen zitzaien zerbitzua zen hau. Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren bati esker ematen zen zerbitzua, eta enpresa pribatu batek kudeatzen zuen. 2003. urtean eman zuen zerbitzua azken aldiz, kostu ekonomiko handia eragiten baitzuen (240.000 euro inguru / urtean). Horren ordez, liburu-sortak bidaltzen dira egun inguruko liburutegi nagusietara.

### **3.9. Dokumentazio-zentroak automatizatzea**

Artxiboak eta liburutegiak dagoeneko ez dira hainbeste jotzen "dokumentu-bildumatzat". Izan ere, gero eta gehiago ari da indartzen "dokumentuak eta informazioa eskuratzeko zerbitzu" direla dioen ideia, dokumentu horien kokapena, jabetza, formatua eta euskarria edozein dela ere. Dokumentu fisikoa edukitzeko ideia indarra galtzen ari da, informazio eskuratzearen mesedetan. Bistan denez, bilakaera horrek eragina du informazio-unitateak kudeatzeko moduan.

Egun dugun egoera horretara iristeko, ordea, aurrez beste hainbat prozesu egin behar izan ditugu. Esate baterako, lehenik automatizatu egin behar izan ditugu dokumentazio-zentroak, eta ondoren horiek guztiak tokiko sareetara eta internetera konektatu.

Haatik, oraindik gauzatzeko dago Euskadin liburutegiak automatizatzeko prozesua. 1994 eta 1999 artean 150 liburutegi publiko inguru informatizatu ziren, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak tarteko (horien artean ditugu 3.000 biztanle baino gehiagoko ia udal-liburutegi guztiak)<sup>(29)</sup>.

Alabaina, oraindik automatizatu gabe daude EAeko 100 bat liburutegi publiko, guztira ditugun 273 liburutegietatik. Euskadin badira ordenagailurik gabeko liburutegiak, baita telefonorik gabekoak ere.

Euskadiko ikastetxeetako liburutegien artean, % 65ek bakarrik dute ordenagailua eta horien artean % 44k bakarrik dituzte automatizatuta beren funtsak. % 36 baino ez dira Internetarako sarbidea eskaintzen dutenak<sup>(30)</sup>.

Bestalde, abian jarritako digitalizatzeko prozesuek artxiboetako bildumetan dute batez ere eragina.

Dena dela, eremu honetan gero eta gehiago eta hobeto egiten da lan, eta aurrera goaz artxibo eta liburutegietako bilduma digitalak osatzeko bidean.

Bestetik, oraindik ohikoa da web-orririk ere ez duten euskal ekipamendu handiak aurkitzea. Gehienek web-orria baduten arren, badira funtsetarako sarbiderik eskaintzen ez dutenak. Hortaz, web estatikoak edo erakusleihu gisako webguneak besterik ez dira.

Nolanahi ere, Euskadin badira lanbidearen inguruko gaiez jarduteko posta-zerrendak (Joana Albret, Udalbib), baita gure arloko hainbat blog ere.

### **3.10. Produkzio zientifikoa bibliotekonomia eta dokumentazioan**

Artxiboak eta liburutegiak historiaren zerbitzu ia bakar eta lehentasunezkora zeudela zioen ikuspegiak, alegia, gure ingurune osoan aldi batzuetan nagusi izan zen ikusmoldeak, hainbat diziplinatan oinarritutako ikuspegiari eman dio bide, dokumentazio-zientziak beren kasa gorputuz joan diren heinean.

Haatik, ikuspegi mugatu horrek badirau oraindik Euskadin. Bertan Historiak, Arkeologiak, Etnologiak, Antropologiak, Soziologiak, Zuzenbideak, Hizkuntzalaritzak, Enpresa Zientziek, Politika Zientziek, Kazetaritzak eta beste hainbat gizarte-zientziak duten indar eta dinamismo handiari, sail akademiko propioetan, produkzio bibliografiko indartsuan eta gizarteko isla eta aintzatespenean oinarritutakoei, dokumentazio-zientzien ahultasuna gehitu behar zaie, izan ere, zientzia horiek ez dute gorputz akademiko propiorik, ezta produkzio bibliografiko egokirik ere, eta gizarteak ez ditu ulertzen diziplina honen funtsezko giltzarriak.

Euskadin 1970eko eta 1980ko hamarkadetan izandako bi gertaera garrantzitsu aipatuko ditut:

- Euskal errepertorio bibliografikorik entzutetsuena "eusko ikaskuntzen bibliografia da, eta ez lege-gordailuan edo eskakizun publikoen beste edozein sisteman oinarritutako euskal bibliografia, institutu bibliografiko bati legokiokeen bezala"<sup>(31)</sup>. Gainera, ezin dugu ahaztu erreferentziako obra jakin baten (Auñamendi entziklopediaren) osagarri, zati edo eranskin gisa sortu zela<sup>(32)</sup>.
- *Eusko Ikaskuntzen X. Kongresuan*, Eusko Ikaskuntzak Iruñean 1987an antolatutakoan eta "Artxiboak, liburutegiak eta museoak" izenekoan,

aurkeztutako txosten eta komunikazio gehien-gehienaren fokatzek hauxe erakusten du: dokumentazio-erakundeak Historiaren zerbitzura daude, soil-soilik, eta zientzia horren tresna lagungarri dira. Hori dokumentazio-erakundearen zereginaren ikuspegi erredukzionista eta partziala baino ez da<sup>(33)</sup>.

Irakurtzeko gutxieneko ohitura duen edozein profesionali senak esaten dio oso pobrea dela Euskadin komunikazio-zientzien inguruan dugun idatzizko produkzioa. Azkeneko hamabost urteetan ez gara gauza izan gurea bezalako erkidego batean arazoizkoa litzatekeena sortzeko, ez bolumenari begira, ez kalitateari begira.

Egia esan, horren inguruan ez dugu izan orain artean azterlan bibliometrikorik, sortutakoa behar bezala balioetsi ahal izateko. Hori dela eta, ezinbestekoa da azkeneko 15 edo 20 urteetako argitalpenen bolumena eta produkzio zientifikoa berrikustea. Idatzizko produkzioa aztertuz gero, dokumentazio-zientziek Euskadin duten egoeraren "argazki" zehatz samarra izan dezakegu.

Errenteriako Artxiboko Bilduma aldizkaria da urte hauetan bizirik irauten jakin duen edo iraun ahal izan duen erakusgarri bakarra. 1987an sortu zen eta 17. zenbakia kaleratu du 2003an. Tokiko historia, artxibistika, dokumentazioa eta bibliotekonomia ditu aztergai. Aldizkariaren fokatzeko historizistarekin alderatuta, artxibistika, dokumentazio eta bibliotekonomiaren inguruko artikuluen pisua txikiagoa bada ere, gai horiei eutsi egin zaie gaur arte. Gainera, azpimarratzekoa da proiektu horretan udal-artxiboa dela buru.

Gainerako ekimen guztiak eten egin dira (Aldeezkaria, Irargi...)

Euskal profesionalek idatzi dutena, beraz, kanpoko argitalpenetan idatzi dute.

Monografia, lankidetzak, tesiak, web-orriak, blogak, zerrendak, foroak edo argitaratzeko gainerako bide formal nahiz informalei dagokienez, urriak dira azkeneko hamabost urte hauetan Euskadin dokumentazio-zientzien inguruan burututako lanak.

### **3.11. Enpresaren mundua**

Enplegu-emaileei erreparatzen badiegu, argi eta garbi bereizi behar dira, batetik, dokumentazioaren eremuan diharduten enpresak eta, bestetik, beren langileen artean dokumentalistak kontratatzen dituzten beste sektore batzuetako enpresak.

Lehenengoan artean honako hiru mota hauek bereizi behar dira:

- 1) Batetik, batez ere teknologikoak edo teknikoak direnak, informazioaren teknologien esparrutik datozenak gehienak ere. Ezagutza handia izaten dute software eta aplikazioen, informazioaren arkitekturaren, berreskuratze tresnen eta abarren inguruan (Odei, Ibai, Baratz...).
- 2) Bestetik, beren jarduna kulturaren eremuko jardueretara bideratzen dutenak ditugu. Ekitaldiak, edizioak eta abar antolatzen dituzte eta kultur ekipamenduak kudeatzeko zerbitzuak eskaintzen (Xabide, Prisma, Sedena...).
- 3) Amaitzeko, dokumentuak kudeatzeko zerbitzuak eskaintzen dituztenak ditugu. Katalogazioa, digitalizazioa, atzera-begirako lanak, funtsen kudeaketa, kudeaketa integrala eta abar (Ikertu, Eki, Item, Custar...).

Zerrenda zehatzagoa nahi izanez gero, ikus lan-talde honen dokumentua, bertan zerrendatu baitira EAEn diharduten enpresa dokumental guztiak.

Bigarren motakoei dagokienez, Euskadin espezialitateko unibertsitate-titulurik ia ez dagoen arren, ekonomia- eta industria-egoerak lan-munduratzeko indartsua ahalbidetuko luke, Madril etaartzelona bezalako inguruneetan agerian gelditu den bezala, izan ere, inguru horiek oso industrializatuta daude eta bibliotekonomia eta dokumentazioaren eremuko titulazio ofizialak dituzte.

Dena dela, Euskadin lan-egoerak aipatutako zona horietan dituztenen antzekoak dira. Dokumentazioko ikasketetan espezializatzen diren gehienek eremu horretan lortzen dute lana. Alabaina, errealitate horrek ere badu alde txarra: lan-kolokatasuna. Aldi baterako kontratuen kopurua oso handia da eta bekak askotan prestakuntzarako aldia baino askoz gehiago luzatzen dira.

Egun enplegua lortzeko iturriak anitzagoak dira. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran profesional gehienek administrazioan lan egiten bazuten ere, gero eta handiagoa da lana sektore pribatuko enpresetan aurkitzen duten tituludunen ehunekoa. Hala eta guztiz ere, sektore honetako enplegu-emaitzak ez dute oso ongi ezagutzen titulazioa eta titulazioak ez du ospe handiegirik horien artean. Horrek enpresa pribatuetan sartzea zailtzen du.

Euskadin, Espainia osoan gertatzen den bezalaxe, ez dago *Records Management* edo bulegoko artxiboen kudeaketa normalizatuaren inguruko tradizioirik.

Alabaina, horrek ez du esan nahi enpresetan paper eta artxiborik izan ez denik. Bistan denez, Euskaldunan ez ziratekeen ontzi handiak eraikiko edo bertako

industria tradizional nahiz berritzaileetako edozeinetan izandako produkzioa ez zatekeen gauzatuko aldi berean hainbat dokumentu erabili gabe eta horiei lotutako prozesuak burutu gabe.

Hortaz, kontuan izan behar dugu gure artean zenbait rol beste profesional batzuek bete izan dituztela eta betetzen dituztela (idazkari eta laguntzaileek, teknikariek berek, antolaketako adituek, informatikariek...), Espainiako industria eta enpresa guztietan bezalaxe.

Baina, egun aukera zabala dugu, edozein produkzio-erakundek kokaleku hobea izango duelako, eraginkorragoa izango delako eta aukera gutxiago galduko dituelako zeregin dokumentalak beren gain hartuko dituzten profesionalak baditu.

Horri begira, adibide nabarmenak ditugu azkeneko urteetan beren plantilletan artxibozain eta dokumentalistak barne hartu dituzten eta I+G+Bn buru diren hainbat korporazio eta enpresa: Zaintek, Iberdrola, MCC, Fagor, Vital kutxa, Ikerlan-Mcc, Leia, Gaiker, Bahia de Bizkaia, Gamesa Aeronautica...

*"Enpresaren munduan dagoeneko hasi dira kontuan hartzen informazioa bitarteko garrantzitsua dela edozein erakunderen helburuak lortzeko eta, hortaz, ekonomian eta eraginkortasunean oinarritutako irizpideei jarraiki administratu behar dela. Alabaina, hori oraindik ez dute kontzienteki onartzen erakunde gehienek.*

*Informazioa produktu berezi bilakatu da; alde batetik ondasun eta tresna estrategiko da produkzio-sektore guztietarako eta, bestetik, salgai iragankorra da eta berorren prezioa nekez justifika liteke"*<sup>(34)</sup>

Zalantzarik gabe, industria eta zerbitzuak dira "ekonomia-nitxo" nagusi gure profesionalentzat.

Hala eta guztiz ere, mota guztietako erakundeen baitan informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalak betetzen hasi diren rol berriak hor ditugun arren (horren eraginez literatura eta teorizazio handia ari dira egiten horiek izendatzeko moduaren eta zereginen inguruan: informazioaren arkitektoa, *infonomistak* eta abar), nabarmentzekoa da gaitasun berriez ari direla jabetzen eta zeregin berriak ari direla beren gain hartzen informazioa eta dokumentazioa erabiltzen duten guztiak eta, oro har, langile guztiak. Egun edozein *white collar worker* da gauza orain dela urte gutxi batzuk baino trebetasun eta arrakasta

handiagoarekin erabiltzeko informazioaren inguruko tresnak eta informazioa bilatzeko eta berreskuratzekeo tresnak.

Hori kontuan izanik, bidezkoa da esatea *information skills* deiturikoek edo informazioa bilatzeko eta lortzeko ahalmen eta trebetasunek (gaitasun informazionalak) nabarmen egin dutela gora gizartearen esparru guztietako eta erakunde-mota guztietako profesionalen artean.

Azpimarratzekoa da biztanleria oso alfabetatuta dagoela eta informazioa lortzeko tresna indartsuak dituela eskura.

Nork bere kasa bilatzeko gaitasuna eta IKTak erabiltzeko erraztasuna Internet eta sarbide globala direla medio sortu den dokumentu-olde berriak eta eskura ditugun material ugariak bakarrik lausotzen dute. Horrek bultzada ematen dio berriz informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalen zereginari.

Tradizioz egin izan den modu berean, hipermedia testuinguru berri honetan dokumentazio-zentroen lehentasunezko eta funtsezko zeregin jarraituko dute izaten materialak hautatzeak, ebaluatzeak, biltzeak eta deskribatzeak eta egituratutako errepertorioak eta gidak prestatzeak.

Horrezaz gain, testuinguru horretan, agian ez dira nahikoak izango alfabetatze tradizionala eta teknologikoa. Nazioarteko alfabetatzerantz (*information literacy*) egin behar dugu aurrera.


Erabiltzaileak bere iturriak agortzen ari direnean jotzen du dokumentalistarengana, eta hori dela eta, handiagoak dira eskakizunak eta itxaropenak.

Profesionalaren zereginaz ari garela, azpimarra liteke orain bere laguntza ez dela mugatzen iturriak aukeratzera eta informazioa aurkitzera. Aitzitik, norberak aurkitutako informazioa hautatzen eta ebaluatzen irakastea izango da bere rol berrietako bat.

Erabiltzaileek gero eta premia handiagoa dute informazioa eraginkortasunez erabiltzeko. Horrexegatik hartu du garrantzia artxiboak eta liburutegiak prestatzaile gisa duten zereginak. Informazioaren eremuko profesionalak nazioarteko alfabetatzerako programak garatu behar dituzte.

Ondoren aurkeztutako datuak eremu guztietako euskal profesionaleri eta horien erakundeetako informazio-ohiturei buruzkoak dira<sup>(35)</sup>:

Euskal enpresetako langileen % 60k dituzte ordenagailu pertsonalak eta % 45ek Internetarako sarbidea. Sarea batez ere dokumentazioa bilatzeko erabiltzen dute (% 90). Ondoren ditugu finantza-informazioa lortzeko erabiltzen dutenak (% 60) eta datu-baseetan sartzeko erabiltzen dutenak (% 30).



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartea eta enpresak [on line]. [Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.eustat.es/lem/ele0001200/inf0001274\\_c.pdf](http://www.eustat.es/lem/ele0001200/inf0001274_c.pdf)>

Azpimarratzekoa da, halaber, euskal enpresen produkzio tekniko eta zientifikoa oso handia dela, eta urtero patente ugari erregistratzen direla EAEn (175 patente, alegia, 45 patente mila ikertzaile eta urteko)<sup>(36)</sup>.

Amaitzeko, gai honez ari garela, artxibo publikoen kudeaketa pribatizatzeko prozesuaz ohartarazi nahi genuke. Hori ohartarazi beharraren erakusle dugu Estatuko Kontuen Auzitegiak 2003an egindako txostena Osasun Sistema Nasionaleko hogeita hamarren bat ospitaleren inguruan (bakar bat ere ez zen EAEkoa, logikoa denez). Bertan historia klinikoak artxibatze, gordetze, zaintze eta kudeatzeko egindako kontratazioa aztertu zen, eta alderdi horien guztien inguruan hauteman zituzten irregulartasun handiak.

## 4. DESKRIBAPEN KONPARATIBORAKO ELEMENTUAK

### 4.1. Biztanleria beste autonomia-erkidego batzuekin eta erkidego eta probintzia mugakideekin alderatuta (2004ko datuak, biribilduta)<sup>(37)</sup>

- Espainia 43.200.000 biztanle
- Andaluzia 7.350.000 biztanle
- Katalunia 6.700.000 biztanle
- Madril 5.800.000 biztanle
- Valentzia 4.500.000 biztanle
- Galizia 2.750.000 biztanle
- Gaztela eta Leon 2.500.000 biztanle
- Euskadi 2.200.000 biztanle
- Araba, 300.000 biztanle inguru
- Gipuzkoa, 700.000 biztanle inguru
- Bizkaia, 1.200.000 biztanle inguru
- Nafarroa ia 600.000 biztanle
- Kantabria 550.000 biztanle
- Burgos 350.000 biztanle
- Errioxa 300.000 biztanle
- (Kanariak 1.900.000, Gaztela-Mantxa 1.850.000, Murtzia 1.300.000, Aragoi 1.250.000, Extremadura 1.100.000, Balearrak 950.000)
- Ipar Euskal Herria 265.000 biztanle (1995)

### 4.2. Beste hizkuntza gutxitu batzuk<sup>(38)</sup>

- Katalana. 7.300.000 hiztun, 9.800.000 lagunek ulertzen dute.
- Galegoa. Galizian herritarren % 90ek baino gehiagok ulertzen dute eta % 60 inguruk hitz egiten dute.
- Euskara. EAEn 2001ean euskaldunak % 32,2 ziren 2 urte baino gehiagoko biztanleen artean. Ia euskaldunak, berriz, % 23,1 eta erdaldunak % 44,6.

### 4.3. Beste unibertsitate batzuk

Andaluzia, Madril, Katalunia edo Gaztela eta Leon bezalako eskualdeetan hainbat unibertsitate ospetsu dituzte, eta kasu guztietan tradizio eta ezarpen nabarmena dute dokumentazioaren eremuko ikasketetan.

Katalunian 4 unibertsitatetan ematen dira dokumentazioaren eremuko ikasketak (Bartzelonako Autonomoan, Bartzelonakoan, VICekoan eta UOCn), nahiz eta 6.700.000 biztanle izan.

Aipamen berezia merezi du 1952an Nafarroako Unibertsitatea sortzeak. Euskaldun ugari prestatu ditu hainbat hamarkadatan eta berak hartu zuen bere gain, Deustuko Unibertsitatearekin batera, euskal unibertsitate-prestakuntzaren zatirik handiena. Une horretan zegoen hutsunea bete zuen eta euskal unibertsitate publikoa sortzea eragotzi zuen neurri batean.

Nafarroako unibertsitateko argitaletxeko inprentetan (EUNSA) argitaratu zen lehen aldiz 1978an "Teoría de la Documentación" deritzan liburua, José López Yepes-ek idatzitakoa, Nafarroako Unibertsitateko Liburuzainen Eskola desagertu zenetik urtebetera eta dokumentazioaren eremuko ikasketak ofizial bihurtzearekin batera.

#### **4.4. Unibertsitate-tituludunak Europan<sup>(39)</sup>**

Unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria aktiboaren ehunekoak:

- Euskadin % 12 1985ean eta % 28,35 2003an
- Espainian % 11,4 1990ean eta % 18 2000n
- 15 kideko Europar Batasunean, % 21,8 2000n
- 25 kidera zabaldutako Europar Batasunean, % 20,4 2000n
- Japonian % 34 2003an
- Ameriketako Estatu Batuetan % 37 2003an

#### 4.5. Beste elkarte batzuk (elkartekideen kopuruaren arabera ordenatuta)

Elkartea	Urtea	Bazkideak
Anabad	1949	1.500
Sedic	1976	964
Col.legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya	1931	1.864
Socadi (integrada en el Col.legi Associació d'Arxivers de Catalunya)	1985	700
Asociación Andaluza de Bibliotecarios	1981	500
Asociación de Archiveros de Andalucía	1992	200
Asociación Andaluza de Documentalistas	1990	150
ALDEE	1990	464
Asnabi. Asociación Navarra de Bibliotecarios	1995	106

## AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Ondoren aipatu ditugu txosten honen zatiak prestatzeko informazioa lortzeko erabilitako iturriak. Gainera, aipatutako zentro, erakunde eta elkarte ia guztien web-orriak kontsultatu ditugu, eta horietatik atera ditugu bakoitzaren zenbatekoak.

<sup>(1)</sup> EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.eustat.es/bancomod.c.html>>

<sup>(2)</sup> EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.eustat.es/bancomod.c.html>>

<sup>(3)</sup> *ENCICLOPEDIA Auñamendi* [on line]. [Donostia]: Eusko Media Fundazioa, 2002. [2005eko otsailaren 7ko kontsulta]. Hemen eskura:

<<http://www.euskomedia.org/euskomedia/SAunamendi?idi=es&op=1>> eta UPV-EHU.

*Información institucional. Antecedentes históricos* [en línea]. [Leioa]: UPV/EHU, s.d. [2005eko otsailaren 7ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.ehu.es/castellano/paginas/prin\\_c.htm](http://www.ehu.es/castellano/paginas/prin_c.htm)>

<sup>(4)</sup> *DIARIO de Noticias de Álava*. 2005eko martxoaren 6a, 15. or.

<sup>(5)</sup> EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.eustat.es/bancomod.c.html>>

<sup>(6)</sup> EUSTAT. *La sociedad de la información y las empresas* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274.c.pdf>>

<sup>(7)</sup> CANALS, Agustí. *¿Quo vadis, KM? La complejidad como nuevo paradigma para la gestión del conocimiento* [on line]. Barcelona: UOC, Internet Interdisciplinary Institute, 2002. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.uoc.edu/in3/dt/20006/index.html>>

<sup>(8)</sup> *ENCICLOPEDIA Auñamendi* [on line]. [Donostia]: Eusko Media Fundazioa, 2002. [2005eko otsailaren 7ko kontsulta]. Hemen eskura:

<<http://www.euskomedia.org/euskomedia/SAunamendi?idi=es&op=1>>

<sup>(9)</sup> PRECISA Research. *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2003* [on line]. Madrid, Precisa Research, 2003. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.editores-euskadi.com/Pdf/Informe\\_Habitos\\_Lectura%20\\_2003.pdf](http://www.editores-euskadi.com/Pdf/Informe_Habitos_Lectura%20_2003.pdf)>

<sup>(10)</sup> EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.eustat.es/bancomod.c.html>>

- (11) PRECISA Research. *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2003* [on line]. Madrid, Precisa Research, 2003. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.editores-euskadi.com/Pdf/Informe\\_Habitos\\_Lectura%20\\_2003.pdf](http://www.editores-euskadi.com/Pdf/Informe_Habitos_Lectura%20_2003.pdf)>
- (12) INE. *INEbase* [on line]. Madrid: Ine, s.d.. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.ine.es/>>
- (13) EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.eustat.es/bancod\\_c.html](http://www.eustat.es/bancod_c.html)>
- (14) Egileak egina sareko hainbat iturri erabiliaz, ondoko iturria nabarmentzen da: Universidad de Granada. Facultad de Biblioteconomía y Documentación. *Antecedentes históricos de la formación de bibliotecarios en España* [on line]. Granada: Facultad de Biblioteconomía y Documentación, s.d. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.ugr.es/~fbd/Informacion\\_centro/Antecedentes.htm](http://www.ugr.es/~fbd/Informacion_centro/Antecedentes.htm)>
- (15) *Euskadi Informazioaren Gizartean Plana*. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza, 2002. [2005eko urriaren 29ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.euskadi.net/eeuskadi>>
- (16) SOTO ARANZADI, Susana. "Nuevos servicios de acceso a la información en la red de bibliotecas públicas municipales de Donostia-San Sebastián". Hemen: / *Jornadas del Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Servicio de Bibliotecas; Donostia: Aldee, 2003, 12. or. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura: <[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas\\_bibliotecarias/es\\_8126/adjuntos/jorna13.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas_bibliotecarias/es_8126/adjuntos/jorna13.pdf)>
- (17) *KZgunea*. [S.I.]: KZgunea, Eusko Jaurlaritza, s.d. [2005eko urriaren 29ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.kzgunea.net>>
- (18) *Euskadi Informazioaren Gizartean Plana*. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza, 2002, 35. or. [2005eko urriaren 29ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.euskadi.net/eeuskadi>>
- (19) *Perfil Profesional berriak Ezagutzaren Aroan*. Bilbo: Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, 2004
- (20) KEREXETA, Roberto. "Euskararen egoera euskal liburutegietan: Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala". Hemen: *Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren I. jardunaldiak* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Liburutegi Zerbitzua; Donostia: Aldee,

2003. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas\\_bibliotecarias/es\\_8126/adjuntos/jorna20.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas_bibliotecarias/es_8126/adjuntos/jorna20.pdf)>

(21) ARREGUI BARANDIARAN, Ana. *Informe sobre la situación de las bibliotecas escolares en la Comunidad Autónoma del País Vasco* [on line]. [Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Saila], 2002. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.berrikuntza.net/edukia/liburutegiak/dokumentuak/informe\\_bibliesc.doc](http://www.berrikuntza.net/edukia/liburutegiak/dokumentuak/informe_bibliesc.doc)>

(22) Egileak berak egindako zenbaketa 1999an.

(23) *CENSO de bibliotecas del País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989.

(24) *CENSO de archivos del País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1986-1988.

(25) FUNDACIÓN Germán Sánchez Ruipérez. *Informe de situación de las bibliotecas públicas en España 2000-2003* [on line]. Madrid: Subdirección General de Coordinación Bibliotecaria, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 2005. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<<http://travesia.mcu.es/informes.asp>>

(26) <http://www.euskadi.net/liburutegidigitala>

(27) [http://www.liburutegiak.euskadi.net/cgi-bin\\_q81a/bilgunea/O9525/ID51bfecf6?ACC=101](http://www.liburutegiak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/bilgunea/O9525/ID51bfecf6?ACC=101)

(28) <http://www.irargi.org>, ikus Euskadiko Agiritegien Sistema Nazionalaren egitarauen atala.

(29) PULGAR, Francisca. "La Coordinación Bibliotecaria: Una necesidad y un objetivo para el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi". Hemen: *I Jornadas del Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi* [en línea]. [Vitoria-Gasteiz]: Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Servicio de Bibliotecas; Donostia: Aldee, 2003. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas\\_bibliotecarias/es\\_8126/adjuntos/jorna22.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/es/contenidos/informacion/jornadas_bibliotecarias/es_8126/adjuntos/jorna22.pdf)>

(30) ARREGUI BARANDIARAN, Ana. *Informe sobre la situación de las bibliotecas escolares en la Comunidad Autónoma del País Vasco* [on line]. [Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Departamento de Educación], 2002. [2005eko urriaren 12ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.berrikuntza.net/edukia/liburutegiak/dokumentuak/informe\\_bibliesc.doc](http://www.berrikuntza.net/edukia/liburutegiak/dokumentuak/informe_bibliesc.doc)>

(31) SANZ DE ORMAZABAL, Iñigo. *De libros y bibliotecas: sobre biblioteconomía, bibliografía e historia del libro de Euskalherria*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Bibliografía, Gobierno Vasco, 1992, 304. or.

<sup>(32)</sup> *ENCICLOPEDIA Auñamendi* [on line]. [Donostia]: Eusko Media Fundazioa, 2002. [2005eko otsailaren 7ko kontsulta]. Hemen eskura:

<<http://www.euskomedia.org/euskomedia/SAunamendi?idi=es&op=1>>

<sup>(33)</sup> CONGRESO de Estudios Vascos (10º. 1978. Pamplona). *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1988.

<sup>(34)</sup> MUÑOZ CRUZ, Valle: "El papel del gestor de la información en las organizaciones a las puertas del siglo XXI". Hemen: Jornadas Españolas de Documentación (6ª. 1998. Valencia). *Los sistemas de información al servicio de la sociedad : actas de las jornadas, Valencia, del 29 al 31 de octubre de 1998*. Madrid: Fesabid, 1998.

<sup>(35)</sup> EUSTAT. *La sociedad de la información y las empresas* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2004. [2005eko otsailaren 28ko kontsulta]. Hemen eskura:

<[http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274\\_c.pdf](http://www.eustat.es/elem/ele0001200/inf0001274_c.pdf)>

<sup>(36)</sup> EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 10eko kontsulta]. Hemen eskura: < [http://www.eustat.es/bancod\\_c.html](http://www.eustat.es/bancod_c.html)>

<sup>(37)</sup> INE. *INEbase* [on line]. Madrid: Ine, s.d. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.ine.es/>>

<sup>(38)</sup> INE. *INEbase* [on line]. Madrid: Ine, s.d. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.ine.es/>> eta EUSTAT. *Banco de datos* [on line]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: < [http://www.eustat.es/bancod\\_c.html](http://www.eustat.es/bancod_c.html)>

<sup>(39)</sup> INE. *INEbase* [on line]. Madrid: Ine, s.d. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: <<http://www.ine.es/>> eta EUSTAT. *Banco de datos* [en línea]. [Vitoria-Gasteiz]: Eustat, 2003. [2005eko martxoaren 8ko kontsulta]. Hemen eskura: < [http://www.eustat.es/bancod\\_c.html](http://www.eustat.es/bancod_c.html)>